

ARABAKO BERTSO- ESKOLETAKO GAZTEAK ETA EUSKARAREKIKO ATXIKIMENDUA

HIZNET 2013-2014

Sakontze egitasmoa

Manex Agirre Arriolabengoa

Tutorea: Kike Amonarriz

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
1.1. ATARIKOAK	4
1.1.1. Zergatik lan hau?	4
1.1.2. Egindako ibilbidea eta erabilitako metodologia	5
1.1.3. Tesi nagusien erreferentzia	8
1.2. TESTUINGURUA. ZEREN, NOREN BARRUAN GAUDE?	10
1.2.1. Araba	10
1.2.2. Goiza eta arratsaldea	11
1.2.3. Arabako gazteak	12
1.2.4. Araba eta bertsoa	14
1.2.5. Arabako Bertsozale Elkartea	16
1.2.6. Arabako bertso-eskolak	17
1.2.7. Arabako bertso-eskoletako ikasleak... Nolakoak dira?	17
2. BERTSOA, BEREZ BAITA ERAKARGARRI	20
2.1. ZER DA HAU?	20
2.2. BERTSOAREN BEREZKO EZAUGARRIAK	20
2.2.1. Bertsoa bat-batekoa eta soila da	21
2.2.2. Bertsoaren “tranpa”: hizkuntza bat, eta bakarra, du ardatz	22
2.2.3. Dibertsioa ere, bertsoaren ardatz	23
2.3. ELEMENTU LINGUISTIKOAN SAKONTZEN: HIZKUNTZA BAITA BERTSOAREN LAN-TRESNA	24
2.3.1. Ahozkotasunaz ari gara	24
2.3.2. Hizkuntza bat eta bakarra, lan-tresna. Ohartzen al gara?	24
2.3.3. Balio komunikatiboak	25
2.3.4. Sormena eta bihurritzea	26
2.3.5. Herdoildutakoa aktibatu	27
2.4. ...BAINA BERTSOAREN EZAUGARRI EZ LINGUISTIKOAK ERE, ERAKARGARRI DIRA	29
2.4.1. Bertigoaren erakarmena	29
2.4.2. Jendaurrekotasuna eta bozgorailu natural izaera	29
2.5. BERTSOA EZ DA SOILIK BERTSOA: MUNDU BERRI BAT DA	32
3. BERTSO-ESKOLAK, EUSKARAREKIKO ATXIKIMENDUA LANTZEKO GUNE	33

3.1. ZER DA HAU?	33
3.2. ZER DIRA BERTSO-ESKOLAK?	34
3.2.1. Definizioerantz	34
3.2.2. Bertso-eskolaren helburuak	35
3.2.3. Bertso-eskoletako metodologia	37
3.3. ERDALGUNEKO BERTSO-ESKOLAK	39
3.3.1. Alderik ba al dago “euskalgunekoekin”?	39
3.3.2. Aisialdian euskararen erabilera lantzeko estrategiak	40
3.3.3. Euskara da bide, eta hala izan behar du.....	41
3.4. BERTSO-ESKOLA: OHARTU GABE, KONTZIENTZIA HARTU	43
3.4.1. Hara! Euskaraz ari gara eta!	43
3.4.2. Albo-kalterik ez: albo-mesedeak	44
3.5. BERTSO-ESKOLAK ARABAN: EKOSISTEMA BATEN PARTAIDE AKTIBO	48
3.5.1. Tokian tokiko sarea.....	49
3.5.2. Eta Araban?	49
4. AMAIERAKOAK	51
5. (ERANSKINA) ELKARRIZKETATUTAKO BERTSO-ESKOLAK: XEHETASUNAK	54
6. BIBLIOGRAFIA	55

1. SARRERA

1.1. Atarikoak

1.1.1. Zergatik lan hau?

Debagoienean gaude, 2000 urtearen arestian. Bertako gazte kuadrilla bat dugu jo puntuan. Asko mugitzen direnetakoak dira, hainbat gazte mugimendu eta elkartetan hartzen dute parte, abertzaletzat dute beren burua, euskarazko eruedetan dabilta institutuan. Kuadrilla trinkoa da, harreman estua dute elkarren artean.

Horraino, nobedade gutxi. Eta, zoritxarrez, nobedade gutxi, era berean, osagai linguistikoari erreparatzen badiogu. Kuadrillako kideek, bakoitzak bere etxean, egoera ezberdina dute: euskara nagusi batean; beste batean, aitarekin eta amarekin gaztelaniaz, anai-arrebekin euskaraz; beste batean, aitzak euskaraz badaki, amak ez... Eta, hala ere, egoera homogeneizatu egiten da guztiz, Kuadrillako euskararen barne-erabilera kontuan hartzen badugu: zero, alegia. Gaztelaniaz eraiki dute, txikitatik, elkarren arteko harremana.

Nobedadea, ordea, 16 bat urterekin dator. Kuadrillako batek, inolako kanpo-eskuhartzerik gabe, barruan borborka duena bota die, zapla, gainontzekoei: "euskaldunak bagara, zergatik ez dugu euskaraz hitz egiten?". Eta, itxuraz, taldekideek ere antzerako kezka izan, txikiago edo handiago, barruan. Eta, miraria: egun batetik bestera, euskaraz hasi dira elkarren artean. Gaur arte.

Kontatutakoa, nobedadea baino gehiago, salbuespenen salbuespena dela esango nuke. Ederra izanda ere. Esperientziak erakutsi digu: Debagoieneko egoera soziolinguistikoa duen eremu batean oso zaila da gazte kuadrilla batek, kanpoko faktoreren batek eraginik izan gabe, eguneroko hizkuntza-jarduna errotik aldatzea. Eta kanpoko faktoreak tartean daudenean ere, faktore horien ezaugarriak ez badira egokiak, edo eraginkorrak, ez da erraza.

Zalduondora egingo dugu jauzi. Dena aldatzen da: egoera soziolinguistiko ezberdina, landa eremuko herri txikia, funtzionatzeko beste modu bat. 2009aren bueltan sortu zen bertan bertso-eskola. Gaur egun bertso-eskolako arduradun den Oier Suarezek ondo gogoratzen du sorrera:

Inauteriak ziren, eta Oihane Perea etorri zitzaigun Joni eta niri, indioz mozorrotuta, eta esan zigun: - aupa, nahi duzue bertso eskola bat egin Zalduondon?; eta guk erantzun genion, - bale. Gu Dragoi Bolaz jantzita gindoazen: Goku eta Krilin ginen (...) Eta horrela sortu genuen. Zalduondoko elkartean elkartu ginen, hirurok eta Agurainetik etorritako beste batzuk... Eta horrela hasi ginen. Eta garai hartan, nik 20 urte nituen, eta Jonek 16, eta gaztelaniaz egiten genuen elkarrekin, klaro. Eta elkarri galdetu genion: "jode, bertso eskolan elkarrekin gaude eta euskaraz egiten dugu, zergatik ez dugu gauza bera egiten bertso eskolatik kanpora?". Eta horrela hasi ginen elkarrekin euskaraz egiten, eta gaur egun beti euskaraz egiten dugu. Uste dut guk euskaraz egin behar genuela sentitzen genuela, eta bertso eskola izan zela horren bultzatzaile.

Kontua ez da gure burua engainatzea; salbuespena da Zalduondoko kasua ere. Bai behintzat hiztun hautuaren hain erabaki berehalakoa eta erradikala erakusten duen neurrian. Baina baditu Zalduondoko bertso-eskolak (Arabakoa den, bertsoa langai duen eta izatez bertso eskola den neurrian) hainbat ezaugarri, jarduera eta eragin, Arabako "erdalguneko" beste bertso-eskoletan errepikatzen direnak.

Azken urte luzeetan Arabako bertso-mugimenduaren ekosistema barru-barrutik ezagutzeko aukera izan dut. Eta zorteko sentitzen naiz, iruditzen baitzait, praktikak hala erakutsita, euskararen biziberritze lanetan leku berezia izan duen kolektibo dinamiko eta langilea dela, benetan. Bere aletxo jarri duela euskararen erabilerak Araban gaur egun duen goranzko joeran. Eta eragin hori, argiago ikusten dela gazteen kasuan. Lan honetan aztergai izan dudana adin-tarteko kasuan, hain zuzen ere.

1.1.2. Egindako ibilbidea eta erabilitako metodologia

Intuzioetatik abiatutako lana da hau. Urtetan Araban bertsoen inguruan bizitakoak, zurrunbiloaren barruan ikusitakoak, soziolinguistikaren ikuspegitik azterketa bat merezi zuelako intuizioa, hasteko.

Intuizio bat baino gehiago, are benetako aztergai bat bazegoela ohartzeko bidea eman zidana Arabako Bertsozale Elkartek 2012ko urrian antolatutako “De repente... bertsoa!” jardunaldiak¹ izan ziren. Elkartearen 30. Urteurrenaren aitzakiapean antolatu ziren bi eguneko jardunaldiak, Arabako bertsolaritzak euskararen biziberritze prozesuan egindako ekarpena aztertzeko asmoarekin. Benetan izan ziren interesgarriak, bi diziplinaren (kulturgintza eta hizkuntza berreskuratze prozesuak) arteko uztartze-ariketa zehatza izan zelako, eta, bereziki, batak (kulturgintzak, bertso-mugimenduak) besteari (euskararen biziberritze lanei) orain arte egindako ekarpena eta aurrerantzean egin diezaiokeena nabarmendu zuelako.

Zaku handiak dira “bertsolaritza”, “euskararen biziberritzea”... bezalako kontzeptuak, ordea. Sakontze egitasmorako mugatze-lana egitea izan zen lehenengo “benetako lana”. Esparru geografikoa argi izan nuen hasieratik. Zehaztasun batekin, beti ere: euskarak gaztelaniak baino presentzia urriagoa duen Arabako lur-eremua hartu dut langai; Aramaio kanpoan utzi dut, beraz. Aurrerago ikusiko dugun bezala, euskarak biziberritze beharra duen eremuetako bertso eskolek badituzte bestelako eremuetakoek ez dituzten zenbait ezaugarri. Horiexek dira lan honetarako interesatzen zaizkidanak.

Arabako bertso-mugimenduak gaur egun dituen interesguneak, hizkuntza biziberritzearen ikuspegitik, bat baino gehiago dira. Elkartea bera, azken urteotako bilakaera zorabiagarriaren ondoren, gaur egun egitura sendo eta dinamikoa duena; bertsolari eta bertsozaleen arteko harreman berezia, egoera soziolinguistiko behartuen aurrean ezusteko erantzun interesgarriak eman dituen; kuadrilla arteko txapelketa (edo, azkeneko edizioan, soilik “kuadrilla artekoa”, txapelketarik gabe), proposamen arabar sui generis totala... Baina, elkartea bera alde batera utzita, egitura bat badago bertsogintzaren eragile, motor, ardatz dena, eta gainera tokian tokiko izaera duena (garrantzia berezia ematen diot horri, aurrerago ikusiko dugunez), bertso-eskolena da hori. Bertso-mugimenduaren kolektiboan parte hartzen duen norbanakoak “egituratzeko” duen lehenengo pausoa da bertso-eskola. Inguru hurbila du, ezaguna, konfiantzazkoa. Askotan, berezko taldeen (kuadrillen, aurretik eskolan egindako harremanen...)

¹ Bibliografian zehatz jasota dagoen arren, iruditzen zait une ona dela aipatzeko: Bertsozale Elkartearen webgunean zehetasun osoz dago jasota jardunaldien edukia, <http://www.bertsozale.eus/eu/araba/dibulgazioa/de-repente-bertso-jardunaldiak/> helbidean.

jarraipena; eta, era berean, harreman berriak egiteko ate irekia. Lan honetan aztertutakoak, beraz, Arabako “erdalguneko bertso-eskolak” dira.

Bertso-eskolen eremua aukeratzearen ondorio ia berezko izan zen adin-tarte zehatz bat lanerako aztergai hartzea. Denetik dago Araban, bertso-eskoletako partaideen adinari erreparatzen badiogu. Askotan, gainera, ez da erraza izaten adin beretsuko taldeak sortzea (herri txikietan, adibidez), eta asko dira talde mixtoak. Eta, hala ere, bertso-eskolek benetako indarra eta bizia hartzen duten garaia 14 urtetik 20 urte ingurura artekoa da. Gazteena, alegia. Tarte horretan erabakitzen eta finkatzen dira gauza asko: gaztetxoek bertsolaritzarekiko etorkizunean izan nahi luketen harremana, gainontzeko bertso-eskoletako kideekiko lotura... Ikasketak, etorkizuna begirako erabaki “transzendentalak”... Eta, noski, egunerokoan erabili beharreko hizkuntz(ar)ekiko harremana, atxikimendua, lotura emozionala.

Hortxe dago, hain zuzen ere, soziolinguistikarekiko lotura, eta lan honen muina. Ukipen egoeratan dauden hizkuntzen kasuan, baldin eta abantaila gutxien duen hizkuntzarekiko biziberritze-lan bat egin nahi bada, funtsezkoa da hizkuntza horrekiko lotura afektiboak estutzea. Errespetatu eta baloratzetik, hizkuntza “propio” egiterainoko terreno zabal eta labainkorraren gainean ari naiz. Eta, nire ustez behintzat, terreno horretan du, hain zuzen ere, erdalguneko bertso-eskolak bere funtzioa, bere egitekoa. Noiz, eta pertsonak iragazkorren, aldaketetarako prestuen dauden garaian; gaztaroan, alegia. Asier Lafuente, Arabako Bertsozale Elkarteko sustapen saileko eragileak dioen bezala, “Arabako gazteen kasuan, bertako egoera soziolinguistikoak euskararekiko nolabaiteko atxikimendua izatera bultzatzen ditu; bertsolaritzak beren atxikimendua ase egiten du, bete”.

Aztergaiaren mugak ondo finkatu ondoren (Arabako erdalguneko bertso eskoletako gazteen euskararekiko atxikimendua), ondorengoa izan da, gutxi gorabehera, orain arte egindako ibilbidea:

- Lanean zehar aztergai izan beharreko bi tesi nagusien formulazioa (hurrengo atalean zehatzago)
- Bibliografia kontsultak. Gaiarekin lotura duten lanen azterketa eta kontrastea
- Gaiari (zuzenean edo zeharka) adituak direnekin elkarrizketak:
 - Karlos Aizpurua, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Iker taldeko arduraduna

- Erika Lagoma, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko transmisio saileko arduraduna
 - Asier Lafuente, Arabako Bertsozale Elkarteko sustapen saileko langilea
 - Arabako Bertsozale Elkarteko transmisio saileko langileak: Oihane Perea, Uxue Diaz de Cerio, Iñaki Viñaspre
- Arabako erdalguneko bertso eskoletako ikasleekin elkarrizketak, landutako tesien kontrastea egiteko²

(Izan Bertsozale Elkarteko langile edo arduradun, izan bertso-eskolako ikasle, prestutasun osoa erakutsi didate elkarrizketatu guztiek, laguntza eske joan natzaienean. Beraiei eskerrak ematea besterik ez zait geratzen)

Azpimarratu beharra dago, ibilbideko azkeneko pausoak baldintzatu duela aurrez egindako lan guztia. Beraz, pausorik garrantzitsuena izan delakoan nago. Hiru bertso-eskolatako kideak elkarrizketa egin ditut: Zalduondoko bertso-eskola, Gasteizko Amaia zentroko bertso-eskola eta Legutioko bertso-eskola. Elkarrizketak taldean egin dira, 45 bat minutuz. Galderak berberak izan dira guztientzat, eta elkarrizketak bertso-eskolaren espazioan bertan egin ditugu. Hainbat irizpide erabili ditut aipatutako hiru bertso-eskolak aukeratzeko: bertako kideen adina, ingurunea (herrigunea/hirigunea), bertso-eskolek une honetan duten dinamika eta bizitasuna... Eta, azkenean, Arabako erdalguneko bertso-eskoletako gazteen lagin txukun bat aztertu dudalakoan nago.

1.1.3. Tesi nagusien erreferentzia

Lan honek bi atal ditu. Atal bakoitzean, tesi bat aurkezten da, eta tesi horren egiazkotasuna frogatzeko saiakera egiten da. Intuizioetatik abiatu, bibliografia-kontsulten eta elkarrizketen laguntzaz indartu eta bertso-eskoletako kideei egindako elkarrizketetan egiaztatu ditut bi tesiak. Hona hemen:

² Lan honetako 5. atalean daude, eranskin gisa, elkarrizketatutako kideen bertso-eskolen oinarritzko datuak. Arabako (eta gainontzeko) bertso-eskolen gaineko informazio gehiago nahi duenak, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen www.bertso-eskolak.com webgunera jotzea besterik ez du.

a) Bertsoa, berez da erakargarri

Bertsolaritzak hainbat elementu propio ditu Arabako erdalguneko gazteei erakargarri egiten zaizkienak.

b) Bertso eskola, euskararekiko atxikimendua lantzeko gune

Arabako erdalguneko bertso-eskolek gazteek euskararekiko duten atxikimenduan eragiten dute, modu positiboan.

1.2. Testuingurua. Zeren, noren barruan gaude?

1.2.1. Araba

Araba. 2011ko inkesta soziolinguistikoan jasotako zenbait datu:

- 45.803 elebidun gaude Araba osoan, hau da, populazio osoaren %16,82.
- 16 eta 24 urte bitarteko gazteen %42,6 da elebiduna.
- Erabili, populazio osoaren %4,3k erabiltzen du euskara gaztelania baino gehiago. Beste %8,3k erabiltzen du, baina gaztelania baino gutxiago.
- Euskara gehien erabiltzen diren eremuak “formalak” dira: eskola eta lantokia. Etxean eta lagunartean asko jaisten da erabilera.

Datuetatik haratago, Arabako euskal hiztunaren erretratu robotatua egin behar bagenu (horrek dakartzan kontraesan guztiekin), honelako zerbait izango genuke esku artean:

- “Arabako euskal hiztuna” oso gaztea da, 16-24 urte bitartekoa.
- Gasteizen bizi da. (Arabako elebidunen bi heren bizi dira Gasteizen, 31.759, eta heren bat herrietan, 14.044).
- Eskolan ikasi du euskara: D edo B ereduan. Segur aski oraindik ere euskaraz ikasten ari da.
- Baliteke gurasoetako bat euskaldun berria edo elebidun hartzailea izatea.
- Erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen da.
- Euskara erabiltzen du, baina erdara baino askoz gutxiago.
- Gehiago erabiltzen du euskara ikasketetan edo lanean etxean baino.
- Euskara sustatzearen alde dago.

Dezente hitz egin eta idatzi da Araban azken hamarkadetan euskarak egin duen abiadura handiko lasterketaz. Beste hainbeste hitz egin eta idatzi da euskal hiztun arabar berriek ezagutza eta erabileraren artean erakusten duten amildegiaz. Lan honetarako, ordea, goraxeagoko

zerrendako bi datu interesatzen zaizkigu: 16 eta 24 urte arteko adin-tartearen barruan egotea euskal hiztun heldu gehien, batetik, eta Arabako euskal hiztuna, oro har, euskara sustatzearen alde egotea, bestetik.

Bota dezagun harria: Arabako gazte gehienek euskara dakite, eta, gainera, ez daude konforme gaur egun euskarak beren inguruan bizi duen egoerarekin (bultzada bat behar duela iruditzen zaie). Badirudi, beraz, eskuhartzerik gabe konponduko dela arazoa. Utz dezagun gazteen esku...

...Ala, beraiek eskatuta ez izan arren, onartuko lukete eta ondo etorriko litzaieke laguntza apur bat? Adibidez, aisialdian? Eskolaz kanpo?

1.2.2. Goiza eta arratsaldea

Legutioko bertso-eskolako kide batek, bertso-eskolara joateaz gain, futbolearen ere jokatzen du. Gutxi-asko, taldekide guztiek dakite euskaraz; hala ere, batzuekin euskaraz egiten du, eta beste batzuekin gaztelaniaz.

Zalduondoko bertso-eskolako kideek musika, pilota, dantza egiten dute. Jarduera batzuk euskaraz dira, beste batzuk gaztelaniaz. Oro har, badirudi joera gaztelaniaren aldera doala. Gasteizko Amaia zentroko bertso-eskolako bat musika eskolara ere joaten da. Gaztelaniaz jasotzen ditu eskolak. Beste batek rokodromoan pasatzen du astean arratsalde bat; begiralearekin euskaraz egiten du.

Sekulako lana egin da azken urteotan Araban, aisialdia euskalduntzen. Berandu konturatu ginen, agian, aisialdi eremuak hizkuntzarekiko atxikimenduan izan dezakeen berebiziko garrantziaz. Baina, konturatu ginenean, serio jarri eta lanean hasi ginen. Horren ondorio da bertso-eskoleko ikasleek gainontzeko jardueretako askotan euskaraz natural aritzeko daukaten aukera.

Eta, hala ere, ume eta gazteengan, oraindik baliozkoa da goiza eta arratsaldearen arteko bereizketa, ikuspegi linguistikoaren arabera. Goizean eskolara doaz: euskaraz egiten dute (onenean). Arratsaldea jarduerak egiten, familiarekin edo lagunartean pasatzen dute: ez dute euskaraz egiten, oro har. Juan Mari Juaristi, arabar bertsolari eta Gasteizko Koldo Mitxelena institutuko irakasleak, zera dio, institutuan martxan jarritako bertso-tailerrera gerturatzen diren

gazteei buruz: “Gazte askorentzat euskara da institutuan ikasi duen zerbait; behintzat, ez daukate bizipen handirik, euskarari dagokionez, beren bizitzan”.

Euskara sustatzearen alde dago gehiengo zabalak, noski. Baina eremu araututik kanporako euskarazko bizipenik ez baduzu, itzelezko borondatea behar duzu zure ohiko hizketa-jardunari buelta emateko. Salbuespenak, Debagoienean. Eta, han ere, apenas.

Zehatzago deskribatu zuen egoera Jon Maiak, atarikoetan aipatutako “De repente... bertsoa!” jardunaldietan (kasu honetan, adin txikiagokoez ari da, baina ederki balio du gazteen kasuan ere) :

Eskolatik atera, eta nora ateratzen da umea? Zer misiotara ari gara bidaltzen ume hori? Zer ari gara eskatzen ume horri? Eskolatik atera eta etxera doanean zer etxetara doa? Kalera doanean zer kaletara doa? Ikusten dugu euskararen erreferentzialtasun falta, basamortu handiak. Umeen unibertso horretan non dago euskara? Ume batentzat prestigioa duen guztia gazteleraz da.

Ondoren etorriko denaren aurrerapen gisa, Juan Mari Juaristik bertso-eskolak gazteen aisialdi-eskaintza orokorrean euskararen normalizaziorako izan dezakeen estrategikotasuna azpimarratu zuen, zeharka (bere kasuan, eskola arautuaren lana nabarmenduz) jardunaldi horietan:

Gazteak teknologia berriez inguraturik bizi dira, eta bestetik, jarduerak praktikatzeko duten aukera aniztasuna ikaragarria da: ingelesa, pianoa, saskibaloia, eskalada, karatea... Ondorioz, bertsolaritza bezalako hitzezko eta kantuzko ariketa soil batera euren kasa inguratzea – zer esanik ez Araba bezalako ingurune erdaldun batean – oso-oso zaila gertatzen da, eta ezinbestekoa da eskolaren lana bertsoaren ingurumariak ezagutaraziz gustatu eta bertsozaletu daitezen.

1.2.3. Arabako gazteak

Iñaki Martínez de Lunak, Urtxintxaren 25. Urteurrenaren harira idatzitako artikulu batean, hiru ezaugarri esleitzen dizkio gazte jendeari. Lan honetan ezagun samarrak egingo zaizkigunak, hirurak:

Gazte jendearen hizkuntza-ezaugarrietako bat, Euskal Herriko hainbat eskualdetan, elebiduna izatea da. Beren bigarren ezaugarrietako bat da gazte elebidun gehienek euskarari atxikimendu handia izatea. Hirugarren ezaugarri bat, ordea, euskara jakin eta maitatzen duten horietako askok euskara baino askoz sarriago erdara erabiltzea da.

Arabako gazteen erretratu robota bete-betean sartzen da Martinez de Lunaren ezaugarri-sortan. Inpresioa ondo zabaldua dagoela esango nuke: Arabako gazteen gehiengoa konforme egongo balitz euskarak gaur egun bizi duen egoerarekin, ez balu sentituko euskarari bultzada emateko beharrik, ez balu euskara, neurri batean behintzat, “bere hizkuntza” gisa sentituko, beste mota bateko lana egin beharko genuke. Beste parametro batzuetan geundeke.

Gaur egungo Arabako joko-zelaiak, ordea, euskal hiztun diren gazteen kasuan behintzat, bete-betean jartzen gaitu hiztun-hautuaren gaiaren aurrean.

Zorionez, aspaldi desagertu zen euskalduna (euskal hiztuna) berez dela euskaldun dioen ustea. Esparru geografikoak edo sozialak bakarrik zehazten duela, hasiera-hasieratik, norbere euskararekiko lotura, atxikimendua; hautu linguistikoa, azken finean. Mugak lausotu egin dira, esparruak birdefinitu. Erabilera badugu aztergai, gainera, badirudi berdindu egiten garela hiztun guztiok: izan euskaldunberri, Azpeitiko ume, Eskiulako edadetu. Inguruak eraginda, noski, baina batez ere norberak hala hautatuta gara gaur egun euskaldun. Lorea Agirrek ederki laburtu zuen esaldi bakarrean ideia hori, Arrasateko AED elkarteak antolatutako hitzaldi batean:

Gaur egun euskaldun izatea ez da berezkotasunez ematen, eraikuntza kontziente bat da, aukera kontziente bat, besteak beste eten zulo eta errebueltaz jositako ginkana baten antza duelako euskaraz bizitzeak.

Zer du interesgarritik ikuspegi honek? Bada, eraikitako gauzeekin lan egitea errazagoa dela. Moldagarriak direla. Gimkana batean parte hartzeko baldintzak guk geuk estutu edo bigundu ditzakegula. Baina, nola egin hori? Nola “eragin” gazteengan, kanpotik, beren hiztun hautuaren gainean duten kontzientzia areagotzeko, erabakiak erantzukizunez hartzeko? Galdera ezaguna, dudarik gabe, euskararen biziberritze-lanetan ari direnentzat.

Martinez de Lunari behin baino gehiagotan entzun diogu bidea gauzak argi esatea dela, kontzientzia areagotzera begira:

Gazteek dituzten baldintza horiek euskararen aldekoagoak izan daitezen eta, horrela, hizkuntza hori gehiago erabil dezaten, lehendabizi beste eginkizun batzuk bete behar dira: a) gazteek beren hizkuntza-portaerari erreparatzea eta horretaz hausnartzea; b) gogoeta hori abiapuntu, aurrerantzean zer egin nahi duten beraiek asmatzea eta finkatzea; c) finkatutako helburu hori erdiesteko nola joka lezaketen erabakitzea.

Bide horretatik, emaitza interesgarriak lortu dira hainbat erakunde eta elkartek martxan jarritako egitasmoen bidez. Gazteekin zuzenean lan egitea planteatzen da guztietan. Modu batera edo bestera, gazteek euskararekiko duten atxikimendu “inkontziente” hori “kontziente” egiteko saiakera da. Bakoitzak norbere jarrerak aztertu, lituzkeen erantzukizunak zerrendatu, aldaketarako erabili beharreko borondatea eta egin beharreko esfortzua neurtu...

Gazteak gora eta gazteak behera ari gara. Eta norbaitek esango du: hiztun hautua edozein adinetan egin daiteke. Zertarako, bestela, euskarari benetako iraultza ekarri dion helduen euskalduntze eta alfabetatzea? Eta 30 urteen bueltan dabiltzan horiek, guraso izan berri direnak... Ez da hori ere momentu egokia hiztun-hautuaren gaineko hausnarketa egiteko?

Aurreratu egingo gara apur bat. Lehenago ere esan dut, baina ez da kasualitatea adin-tarte hori hautatzea (gutxi gorabehera 14 eta 20 urte artekoen ari gara). Bertsoa dugu aztergai lan honetan. Bertso-eskolez ari gara. Eta egindako aukera indartzera dator Ixiar Eizagirre, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko transmisio saileko eragilea. Bere esanetan, bertsolaritzari, gaur egun, bereziki nerabezaroan lotzen gatzaizkio. Bertsolaritzak dituen ezaugarriak eta bere espazio “naturala” (kalea, festa, umorea, harremanak) nerabezaroaren eskenatoki nagusi dira.

Gauza asko aldatzen dira nerabezaro eta gaztaroan, baina era berean gauza asko finkatzen dira. Esango nuke hiztun hautuaren “urrezko garaia” dela. Umea ez da kontziente, ez du kezka hori. Gaztea hasten da horretan pentsatzen, gaiari buruzko kontzientzia hartzen (Martinez de Lunaren bidetik). Eta, Oihane Pereak, Arabako Bertsozale Elkarteko transmisio saileko eragileak, argi du: “Une horretan, bertsoak barruan harrapatzen baditu, marka uzten du.”

1.2.4. Araba eta bertsoa

Arkeologia handirik egin gabe, gaur egungo bertsolaritzak Araban izan duen ibilbidea 30 urtetik gorakoa dela esan dezakegu. Aldi benetan indartsuak izan ditu, eta baita ahul samarrak ere, baina, oro har, bertsoaren presentziaren joera goranzkoa izan dela esan daiteke, beldurrik gabe: bai bertsogintzaren beraren kalitatean, bai bertso-mugimenduak izan duen hedapenean ere.

Ez dugu historiari egingo, ez da hau lekua. Ruben Sanchezek jaso zuen, modu egokian, 2006an, ordura arte bertsoak Araban egin zuen ibilbidea. Interesa duenak bertara jotzea besterik ez du.

80. hamarkadaren hasieran ekin, eta gaur egunera artekoa izan da bertsoaren historia Araban. Ez da kasualitatea, noski, euskararen berreskurapen lanak indar betea hartu zuen garaian sortzea Arabako lehenengo bertso-eskolak ere (Gasteizen eta Aiarako eskualdean). Hizkuntzaren biziberritze-lanak eta bertsolaritzaren hedapen-lanak nonbait eskutik helduta joan badira, Araban izan da hori. Ez hutsetik hasita, baina bai hutsaren hurrengotik hasita. Harrigarria da, zer pentsa ematen du, hasiera-hasiera haietako euskaltzale talde batengan baino gehiagorengan bertsolaritzarekiko interesa piztea, inolako tradizioz izan ez zuen lekuan. Amuriza ez zen urruti ibiliko.

Euskal Herriko Bertsozale Elkartek landu du, nolabait, bertsolaritzaren eta biziberritze prozesuan dagoen hizkuntzaren arteko lotura. Merezi du gaiak hausnarketa eta lanketa sistematiko bat. Hala ere, badaude hainbat giltzarri, nabarmentzeko modukoak, "Bertsolaritzaren garrantzia" dokumentuan jasoak:

- Biziberritze prozesuan den hizkuntza batentzat bere baitan halako errealitate bat (bertsolaritzarena, alegia) edukitzea, bizirik eta indar betez, zorte handia da.
- Bertsolaritza euskararentzat jomuga diren espazioetan arrakasta duen jarduna da: kalea, espazio publikoa, lagunartea, giro informala, ahozko jarduna.
- Bertso saioak, erritual gisa, hiztun komunitatea elkartzeko guneak dira. Gure gizarteari buruz publikoki gogoetatzen da, autoafirmatuz.

Goian aipatuek zentzu betea hartzen dute gaztelaniak nagusitasuna duen eremu soziolinguistikoan. Araban, bertsoaren inguruan jiraka gabiltzanok, bete-bete sinesten dugu bertsoak berak euskararen egoera soziala hobetzeko elementuak badituela. Bertso-mugimendua artikulatzerako orduan, nola ardaztu, egiturak nola osatu pentsatzerako orduan, irizpide nagusia da hizkuntza. Ez onerako, ez txarrerako: beste eremu batzuetan (hain) kontuan hartu beharrik ez dagoen irizpide bat gehiago.

Jon Sarasua ere izan genuen gonbidatu, “De repente... bertsoa!” jardunaldietan. Bere esanetan, Arabari bertso mugimenduak egin dion ekarpena ekosistema bat sortzea izan da. Eta, aipatu zuen ekosistema hori zein indarren inguruan ardaztu den ere:

Arabian, bertso mugimenduak egin du bere ekarpena eta gako asko jarri ditu mahai gainean: bat, fluxu sentipenaren transmisioa, bestea, sorkuntza baten zorroztea eta sorkuntza terminoetan ulertzea euskaldun izate hori, sorkuntzaren popularizazioa, ekosistema txiki baten sorrera, ekosistema zabalago eta handiago baten barruan.

Ez da asko esatea, Sarasuaren bidetik jarraituz gero: bertsoak Araban euskarari zerbait erakutsi badio, hizkuntzarekin modu naturalean harreman iraunkor bat izatea posible dela erakutsi dio. Ez da hori lortu duen mugimendu bakarra izan, zorionez. Baina Arabako bertso-mugimenduak jaiotzetik hartu du bere gain erantzukizun berezi hori, euskararen egoerarekiko harreman berezi hori.

1.2.5. Arabako Bertsozale Elkarte

30 urteotako ibilbidearen motor izan dira hasieran Aiaraldeko eta Gasteizko Bertso Eskolak, ondoren Gasteizko Bertso Eskola, eta gero Arabako Bertsozale Elkarte.

Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egituraren barruan dago Arabako Bertsozale Elkarte, gainontzeko lurraldeetako elkarteekin batera. Organigrama zehatz baten zati da, beraz: bertso-mugimenduak, kultur-mugimendu gisa, bere burua antolatzeko erakutsi duen gaitasun harrigarriari zor dio Arabak Bertsozale Elkarte indartsu bat izatea.

Ordea, lurraldetik lurraldera ezberdina da bertso-mugimendua. Lantresna bera eta helburu bertsoak izateak ez du esan nahi egituraketan imitazioz jokatu behar denik. Arabaren kasuan, adibidez, Elkarteak beste lurralde batzuetan ez duen pisua dauka. Bertso-eskola asko elkartearen ekimenez sortu dira, lurralde mailako ekimen orokorrek berebiziko pisua dute... Adibide gisa, 2002an Bertsolari aldizkariak argitaratu zuen bertso-eskolei buruzko ale monografikoan, Oihane Pereak zioen Arabako Bertsozale Elkarteari indarrak beste leku batzuetan jartzeko garaia iritsi zitzaioela, eta Gasteizetik kanpora lan egiteko garaia iritsia zela: bertso-eskolak sortu behar zirela Legution, Amurrion, Agurainen... Beste lurralde batzuetan ez da halako beharrik egon.

Bertso-eskolak Araban zehar sustatu eta martxan jartzeko helburua gaindituta, alderantzizko bidea hartuta dabil gaur egun Arabako Bertsozale Elkartea. Bertso-eskola berriek autonomia irabazi dezaten nahi du, tokian tokiko ekosistema txikiak modu independentean jokatzen has daitezten.

Lan honen azkeneko atalean, bertso-eskolei dagokienean, aztertuko dugu gai hau sakonago. Orain, nahikoa da esanda bertso-eskolak direla bertso-mugimenduaren egituraketaren tokian tokiko erreferentzia, horrek dakarren esanahi guztiarekin.

1.2.6 Arabako bertso-eskolak

Une honetan (2013-2014 ikasturtearen amaieran), 17 bertso-eskola daude martxan, Araba osoan zehar.

17 horietako bakarra dago euskarak indar handia duen eremu soziolinguistikoan (Aramaion); gainontzeko 16ak erdalgunean daude.

17 bertso-eskola horietan 37 talde daude; batzuetan irakasle bat dago, beste batzuek irakaslerik gabe funtzionatzen dute. 37 talde horietan, guztira, 223 dira partaideak.

37 talde horietatik, 7 dira, gutxi gorabehera, gure adin-tarteari dagokion kideak dituztenak.

1.2.7 Arabako bertso eskoletako ikasleak... Nolakoak dira?

7 talde, 40-50 bat lagun guztira. Arabarrak, gazteak, eta euskal hiztunak. Neska-mutil talde eder bat.

Baina, denek dute harreman bera euskararekin? Bertso-eskolan izena ematen duten unean, hiztun-hautua egina al dute denek? Euskararekiko etorkizunean izan nahi luketen harremana zehaztuta al dute denek? Ba al dute inguruan dituzten bi hizkuntzen arteko desorekaren kontzientziarik? Sentitzen al dute erantzukizunik, euskararen biziberritze-prozesuari dagokionean?

Arabian bertso-eskolaz bertso-eskola dabiltzan irakasleen artean iritzi ezberdinak ateratzen dira, galdera horiek planteatuz gero:

Batek esango dizu, zalantzarik gabe, bertso-eskolara datozen umeek badutela euskararekiko kezka bat, atxikimendu bat, sentitzen dutela nolabaiteko erantzukizuna. Eta horretaz gain, aktiboak direla, parte hartzeko gogoia dutela, eta sormenerako joera dutela. Hizkuntzarekiko badutela harreman berezi bat, eta horrek egiten dituela euskaltzale. Eta horregatik ematen dutela izena bertso-eskolan.

Beste batek esango dizu bertso-eskolara gerturatzeko arrazoi ezberdinak dituztela, eta euskararekiko harremana izan daitekeela horietako bat. Baina hainbat eta hainbat direla euskara urrun samar sentitzen duten bertso-eskoletako kideak, eta izena eman dutela inguruan saioaren bat tokatu zaielako, aurretik bertso-eskolan dabilen norbait ezagutzen dutelako... Taldeak, inguruak, lagunek eta gurasoek eragin handia dutela... Askok hasten direla kasualitatez, eta gero "engantxatu" egiten direla, nolako giro ona dagoen ikusita, irakaslea zeinen jatorra den antzemanda...

Beste iritzi bat ere zintzilikatuko du, eztabaidaren erdian, norbaitek: euskararekiko grina baino, sormenerako grina duten gazteak etortzen direla bertso-eskolara; izan ere, 15 urterekin, edozein hizkuntzatan dela ere, sormena pil-pilean dagoen gaitasun bat da, erakargarria dena, eta, adibidez, bertsoa aukeratzen baduzu barruan duzun hori bideratzeko kanal gisa, emaitzak izango dituzu, bat-batean, esfortzu handirik gabe... Sormena bideratzeko modu erraz bat baita bertsoa, eroso, ondo antolatua. Eta gero konturatzen zara, zer, eta euskaraz ari zarela kantuan...

Iritziak iritzi. Arabako euskal hiztunaren erretratu robotatu proposatu dut lehenago, eta orain zaila egiten zait bertso-eskoletan parte hartzen duten gazteen ezaugarri komunak zerrendatzea. Lupa gero eta gertuago jarri, gero eta ñabardura gehiago ateratzen diren seinale.

Bil ditzagun hiru ezaugarri nagusi, aurrez irakasleek botatakoen artean, hanka sartzeko beldur eta guzti. Arabako erdalguneko bertso-eskoletako gazteak, bertso-eskolan hasten diren unean, dira:

- Aktiboak, sormenerako zaletasuna dutenak
- Euskararekiko nolabaiteko atxikimendua badutenak, baina horretan gehiegi pentsatu ez dutenak

- Bertso-eskolan izena eman dutenak erakargarri egin zaielako, ondo pasatzen dutelako... eta ez bertsozaleak direlako (etxean, eskolan... bertsozaletu direlako)

Zentzu horretan, badute antzekotasuna Jon Maiak bere buruaz kontaktzen duenarekin (bai, gutxienez, ondorengo testutxoaren lehenengo zatiarekin):

Ni bertsoan hasi nintzen inoiz bertso saio batera joan gabe, inoiz bertso bat zuzenean entzun gabe, etxean bertsolarien aipamen bat inoiz entzun gabe. Hasi nintzen bertso eskolan zuzenean (...) euskara izan da nire bidea, eta bertso eskola nire bizilekua. Hor euskaldundu naiz, eta horrek eman dit leku bat munduan.

Aztergaia, eremua eta xede-taldea nahikoa zehaztuta daude honez gero. Tesietara pasako gara.

2. BERTSOA, BEREZ BAITA ERAKARGARRI

2.1. Zer da hau?

Bertsoak, espresibide gisa, hainbat elementu ditu gazteentzat erakargarri direnak. Elementu horiek berezkoak dira: gaur egun bertsoan egiteko dugun modua eta bertsolaritzaz dugun kontzepzioak berez dakartzan elementuak dira. Datozen orrialdeotan, ezaugarri horien nolabaiteko zerrenda egiten saiatuko gara, Arabako bertso-eskoletako gazteen ikuspegia kontuan hartuta, beti ere.

Horretaz gain, soziolinguistikara gerturatzeko asmoa ere badu atal honek. Bertsoaren elementu linguistikoa nabarmenduko dut: bertsoak, berez, euskaraz izateko duen ezinbestekotasunaz ariko gara. Eta, baldintza gotor horrek gazteengan sor ditzakeen albo-mesedeak ere aztertuko ditut.

2.2. Bertsoaren berezko ezaugarriak

2.2.1. Bertsoa bat-batekoa eta soila da

Hitzaren kirol nazionala izan zen bertsolaritza ikuspuntu teoriko batetik aztertu zuen lehenengo liburua. Benetako iraultza ekarri zuen Amurizaren lanak, batez ere akademiarako bidea ireki ziolako ordura arte “herrikoi”, “folkloriko” eta “tradizio” terminoekin batera aztertzen zen espresio artistiko bati. Esango nuke, bertsolaritza genero bereizi gisa aztertzen hasteko abiapuntua ezarri zuela.

Bertsoaren definiziorako ezaugarriak zerrendatzerako orduan, batek hartzen du berehala lehenengo postua, ia berez: bertsoaren bat-bateko izaerak, molde inprobisatuak. Eta, izan ere, Amurizaren lanean aurkitu dut ezaugarri hori deskribatzeko modurik egokienetako bat:

“Bertsoak, entzunez bat jatekoa izan behar du.”

Jon Sarasuak, orain gutxi argitaratutako *Hiztunpolisa* liburuan, soiltasunaren ideia eranstean dio bat-batekotasunarenari.

bertsoaren balioa, berez, aski txikia da (...) Balio ezdeusen inguruan sortutako eraikinak dira gure aterpe probisionalak. Haur-jolasen miraz egindako heldu-jolasek mugitzen dute mundua.

Agian, ideia beharrean, “balio” deitu beharko genieke bi ezaugarrioi, Sarasuaren bidetik. Gaur egungo kultur erduetatik nahiko aparte dagoen espresioa da bertsoaren moldea: serieko erreprodukzioen bidez funtzionatzen ez duen adierazpide bakarretakoa da. Sorkuntzaren momentua eta adierazpenaren momentua bat ditu. Baloratzeko modukoa da hori, “balio” bat da.

Eta, gehiago “balio” du, gainera, bertso-eskoletako ikasleek ezaugarri hori benetan estimatzen dutela ohartzen garenean. Bertsoan egiteko ez duzu instrumenturik behar, merkea da. Irisgarria da, gertukoa, eroso. Tresna erabilgarri bat da. Eta hori dena horrela da, sinplea, soila delako.

Eta, hori gutxi balitz, bat-batekoa da. Planifikazio-lan bat baduena, baina azkeneko unera arte guztiz definitu gabe dagoen komunikazio-bidea. Sokaren gainean ibiltzea bezalakoa da, horrek

dakarren bertigoarekin. Eta badakigu bertigoa erakargarria dela. Eta gazteentzako, are erakargarriagoa. Aurrerago sakonduko dugu gehiago gai honetan.

2.2.2. Bertsoaren “tranpa”: hizkuntza bat, eta bakarra, du ardatz

Bistakoa da, edo bistakoa dirudi. Bertsoan euskaraz bakarrik egin daiteke, esperimentuak esperimentu. Baina iturri ezberdinek behin eta berriz azpimarratzen duten ideia da. Gaiari (bertsoa, euskara, atxikimendua) bueltak ematen hasi, eta derrigortasun hori gero eta ardatz indartsuago bilakatzen da.

Xabi Payarena da ondorengo esaldia, “De repente... bertsoa!” jardunaldietatik hartua:

Bertso eskolan, beste leku batzuetan pausu dena (euskara), hemen ezinbesteko baldintza da, euskara da bidea, ez helmuga. Bertsolaritzak hori ezinbestekoa du.

Erika Lagomari ere, jardunaldi berberetan emandako hitzalditik, ondorengoa hartu diot:

Bertsolaritzan murgiltzeko euskaraz egin behar da, euskara ulertu behar da? Bai, leku guztietan. Hori da bertsolaritzaren balio erantsia, eta horregatik da garrantzitsua bertsolaritzatik egiten ahal den lana. Zorte hori dugu: bertsolaritza euskaraz da, eta euskaraz bakarrik.

Aurrez ere lerrootara ekarri dugun Juan Mari Juaristiri lapurtua da ondorengoa. Hau ere, “De repente... bertsoa!” jardunaldietako mahai-inguruetakoa batean jaso:

Futbolearen ez dago bermatuta taldean onena euskalduna izatea, hemen bai.

Eta, Asier Lafuentek, Arabako Bertsozale Elkartearen sustapen saileko eragileak, beste gai batzuen inguruan ari delarik, ideia bereberetan bukatzen du:

Zergatik da bertsolaritza erakargarria gazteentzat? Batez ere, euskararekiko atxikimendu handia duten gazteei euskaraz bizitzeko aukera ematen die. Bertsolaritza euskararako bidea da. Euskara ezinbestekoa da, eta hor dago koska.

Hor dago koska. Bertsoaren munduan sartzen garenean, ez daukagu euskararen munduan sartzea beste erremediorik. Eta, euskararen munduaren barruan bizi bagara egunerokoan, jautzia ez da hain nabarmena, aldaketarik ia-ia ez dago. Baina, erdalguneko bertso-eskola batean ematen badugu izena, eta goraxeago egindako erretratu-robotaren antzekoa bada gure profila, badago aldaketa. Eta hor dago koska.

Beste gauza bat da, gazteak ohartzen diren horrekin. Nahita egiten duten, kontzientzia-hartze ariketa baten ondorio den bertso-eskolan izena ematea, hausnarketa baten ondorio. Legutioko bertso-eskolako ikasle batek erantzungo dizu bertsolaritza gustatzen zaiola, besteak beste, euskaraz delako, baina ez doala bertso-eskolara euskaraz egiteko arrazoi bat delako. Zalduek bertso-eskolan erantzungo dizute bertsolaritza gustatzen zaiela gurea delako; munduan badaudela antzerako gauzak, baina bertsoa dela gurea, euskal kulturaren zati bat dela. Hau da: erantzun horien azpian argi dago bertsoa eta euskararen arteko lotura berehala hautematen dutela ikasleek, logikoki. Baina hausnartzen al dute hori? Pentsatzen al dute horretan? Bertso-eskolan lantzen al da aspektu hori?

Atal honetan bertan, aurrerago, eta bertso-eskolen metodologia aztertzerakoan landuko dugu alderdi hau sakonago.

2.2.3. *Dibertsioa ere, bertsoaren ardatz*

Hitzaren kirol nazionalera goaz bueltan. Hala dio Amurizak:

Idealizazioen edo arbuioaren aurretik, ederra edo zakarra den pentsatzen hasi aurretik, bertsolaritza dibertsio bat dela esaten badugu, ez gabiltza funtsetik urrun (...) Hitza lanerako, bizitzeko, elkar komunikatzeko behar den tresna dugu. Lan tresna hori, molde edo arau batzuk ezarriz, jolaserako edo jokorako erabiltzea, horixe da bertsolaritzaren alderdi funtsezko bat (...) Zertan ari gara? Jolasean ari gara, jokoan ari gara. Lan tresna edo bizi tresna zen hitza, jolas edo joko tresnatzat hartu, oztopoak edo gainditu beharreko zailtasun batzuk jarri (neurria eta errima) eta jokatu.

Elementu linguistikoa, berezko lan-tresna, gainditu egiten da goiko testuan. Bertsoa dibertsiorako da: sortzailea eta hartzailea konexio berezi horretan lotzen dira, dibertitzeko helburuarekin. Dibertsioa, argi dago, zentzurik zabalenean ulertuta: emozioak azalertzeko, lantzeko eta partekatzeko eremuaz ari gara.

Gazteentzako erakarmena duen alderdi bat gehiago. Ekintza dibertigarri bat, ondo pasatzekoa. Eta, gainera, euskaraz.

2.3. Elementu linguistikoan sakontzen: hizkuntza baita bertsoaren lan-tresna

2.3.1. Ahozkotasanaz ari gara

Bat-bateko bertsolaritza: gakoak eta azterbideak liburua da, gaur egun, *Hitzaren kirol nazionalaren* baimenarekin, bertsolaritzaren ikuspegi teoriko bat eskaintzen digun erreferentzia nagusia.

Bertsolaritza literatura idatziaren azterketa-parametroetatik (eta, baita, neurri batean, literaturaren esparrutik ere) ateratzeko saiakera da Joxerra Garzia, Andoni Egaña eta Jon Sarasuak sinatutako liburua. Garai batean nahikoa joko eman zuen eztabaida (bertsoa, espresio-bide gisa, nola aztertu eta nola kokatu behar den) gaindituta dagoela deritzot. Bertsoak gehiago du performancetik, oratoriatik, diskurtsotik, literaturatik baino. Bertsoan baliabide literarioak erabiltzen direla ez dut, ordea, ukatuko: hizketan ere erabiltzen ditugu. Ahozkotasanaren eremuan sartzen dugu gure burua bete-betean, beraz.

Gaur egungo bertso eskoletan guztiz txertatuta dagoen kontzeptua da ahozkotasuna, bai teorian eta baita praktikan ere. Metodologia aldetik, guztiz bideratuta dago hizkuntzaren ahozko moldea lantzerako, esanindarra, espresibitatea eta era horretako kontzeptuak dituelarik eguneroko ogi.

Lan honen ikuspuntutik, euskarara gerturatzeko modu berezi bat ematen dio ahozkotasunak erdalguneko gazteari. Zuzenagoa, gertukoagoa, bat-batekoagoa, hizkuntzaren beste molde batzuk baino. Erakargarriagoa, agian.

2.3.2. Hizkuntza bat eta bakarra, lan-tresna. Ohartzen al gara?

Ahoz erabiltzen da euskara bertsoan. Bertso-eskolako ikasleek ondo dakite hori, ederto ohartzen dira horretaz: bertso eskolan kantatu egiten da, ziria sartzen zaio ondokoari, esan egiten da.

Baina zein hizkuntzatan esaten da? Atzera eman dezagun pauso bat, berriz. “Tranpan” eroritako ikasleek, “Zein hizkuntzatan egiten duzue bertsoan?” galdera are tranpatiagoa egiterakoan, honela erantzuten dute:

- **Legutioko bertso-eskola:** *Euskaraz egiten dugu bertsoan beti. Zuzenean euskaraz datoz pentsamenduak. Gaztelaniaz egiten saiatu izan gara, jolasteko, baina askoz zailagoa da. Eskema eginda daukagu. Hasieratik euskaraz egin dugu, horrela ohitu gara.*
- **Zalduondoko bertso-eskola:** *Ez dugu pentsatzen zein hizkuntzatan egin behar den bertsoan. Berez dator. Ideiak euskaraz etortzen zaizkigu. Askotan zailagoa egiten zaigu euskaraz pentsatzea eta gaztelaniara itzultzea, alderantziz baino.*
- **Gasteizko bertso-eskola:** *Euskaraz bakarrik kantatzen dugu, beti. Automatikoa da, ez dugu horretan pentsatzen. Etxetik bagatoz, gaztelaniaz hitz egitetik, automatikoki txipa aldatzen “zaigu”.*

Xehetasunen zurrumbiloan erortzea da agian, baina Gasteizko bertso-eskolakoen azkeneko esaldiko aditzaren aspektua nabarmentzeko modukoa da. “txipa aldatzen ZAIGU” esan zuten galdera egiterakoan, eta ez “txipa aldatzen DUGU”. Bertso-eskolaren atetik sartzea, ohartu gabe, euskararen mundura sartzea da.

2.3.3. Balio komunikatiboak

Bertsoak hizkuntza langai duen neurrian, adierazpidearen eremuan sartzen gara. Zein moldetan esan behar dugun, bertsoaren legeek agintzen digute. Zer esan behar dugun pentsatzen hasten garenean, ordea, eremu askeago batera egiten dugu salto. Eremuan badaude arauak, noski: entzulearekiko komunikazio egokia bermatu beharrak ezartzen dituenak. Hala ere, hizketarekin, ahozkoarekin bat egiten duen eremu askean dabil bertsoa, ikuspegi horretatik. Barruan duzuna ateratzeko bidea da; sentitzen duzuna adierazteko aukera askea ematen dizu.

Eta, hori, badirudi gustatu egiten zaiela gazteei:

- **Legutioko bertso eskola:** *bertsolaritza gustatzen zaigu, bestela esan ezin ditugun gauzak esateko aukera ematen digulako.*

- **Zalduondoko bertso eskola:** *askatasuna ematen dizu bertsoak. Gauzak soltura gehiagorekin esateko bidea ematen dizu.*

Andoni Egañak askotan aipatzen duen aspektua da hori. Hala egin zuen, lan honetara behin eta berriz ekartzen ditugun jardunaldietan ere. Kasu, honetan, bertsoak Gasteizen izandako hazkundeaz ari zela esan zuen ondorengoa:

Zer dauka bertsolaritzak, hain derrepente, batere euskalduna ez den edo oso neurri txikian euskaldun zen hiri batean halako permeabilitatea izateko? (...) Balio komunikatiboak ditu. Denen bistan daude. Bestela ere esaten ditugun gauzak esaten dira bertsotan, baina bestela (...) Permeabilitate hori ulertu liteke, ikusiz bertsoak badituela balio batzuk komunikaziorako egoki bihurtzen dutenak, eta badituelako albo-mesede batzuk euskal komunitateari mesede egiten diotenak.

Ahokotasunarekin ari gara bete-betean. Gauzak “beste modu batean” esateko aukera ematen du bertsoak. Hizkuntza “beste modu batean” erabiltzeko aukera ematen du. Norberak aukeratzen du zer esan, baina badago lan autoerreflexibo bat: batzuetan, ezinbestean, gauzak nola esan pentsatu behar duzu. Horrek zuzen-zuzenean garamatza balio komunikatiboetara (balio “erantsi” komunikatiboetara, agian). Bertsoaren egiturak berak, komunikazio-moldeak hala eskatuta, bertsotan ari denak lan bat egin behar du: nola adierazi modu indartsu batean sentitzen duena, nola eman buelta esan behar duenari, beste kolore bat har dezan... Eta gazteek hori gustuko dute. Gauzak esateko modu berriak atsegin dituzte.

Eta hizkuntza da horretarako erraminta. Hizkuntza bat: euskara.

2.3.4. Sormena eta bihurritzea

Bertsoak hizkuntza bihurritzeko aukera ematen du (honetan, agian, beste zenbait adierazpideren parera dator, hizkuntza langai dutenak, beti ere: literatura...). Bertsolaria, bertsotan ari denean, sormena lantzen ari da. Sarasua, *Hiztunpolisa*:

bertso-munduak hizkuntzaren sorkuntza prestigioduna bultzatzen du, erakutsi eta sentiarazi, esanez “begira noraino irits daitekeen hizkuntza honekin. Begira ze edertasun, ze plazer, ze gozamen sor daitekeen hizkuntzarekin.”

Hizkuntzari distira atera, hizkuntza bizkortu, txispak ateratzeko moduan bihurritu... Hori dena egin daiteke bertsoan; are gehiago, bertsoak hori egitera garamatza. Batzuetan, bertsolariak hala nahi duelako; beste batzuetan, bertsoaren beraren moldeak hala eskatzen duelako.

Gazteek, askotan, uste duguna baino garrantzia handiagoa ematen diote hizkuntzari. Ohikoa izaten da gazteengan, gauzak esateko moduari buruzko zalantzak agertzea, gauzak esateko modu berriak proposatzea, hizkuntzaren (ordura arteko) legeen aurkako ekarpenak egitea... Orreaga Ibarak, *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa* lanean, argi azaltzen du: gazte-hizkerak hizkera estandarretik bereizi nahi du, hainbat aldaeraren aurka eginez (eskola-araua, estilo jaso, helduen kultura).

Bertsoak bide bat zabaltzen dio halako gauzak egiteko gogo duenari. Egia da ez direla gutxi bertsoan “estandarizatuta” geratu diren esamolde eta hizkuntza-jardunak, hizkera pobretzen dutenak (bide batez, aztertze moduko gaia hau ere); baina horiek ere “ikasi” egin behar dituzte ikasleek. Ondoren datorren zerbait da. Aurretikoa da hizkuntzarekiko harremana, ia-ia nahigabe, aldatzea, sakontzea.

Ez dezagun aztergai dugun xede-taldea ahaztu. Aramaioko gazteak, bertso-eskolan izena ematen duen unean, euskararekiko harreman berri bat hasteko bidea irekitzen badu, zer esanik ez Gasteizkoak. Are gehiago, euskararekin ordura arte izan duen harremana eskola-eremukoa eta udalekutakoa bakarrik izan bada.

2.3.5. Herdoildutakoa aktibatu

Ikuspuntu hau bertso-eskolen atalean gehiago landuko badugu ere, merezi du, gutxienez, gaia aurreratzea. Hala zioen Oihane Pereak, “De repente... bertsoa!” jardunaldietan:

Arabako gazteek bertsoa behar dutela esatera ausartuko nintzateke. Nolabait esateko, gazte askori eskolan ikasitakoa herdoilduta edo desantolatuta geratzen zaie. Batez ere erabilera nahiko mugatua dute institutu garaian, eta hori aktibatzen, “deserdoiltzen” lagundu dezake bertso-eskolak.

Eta, Oihane Perek esandakoa, hala indartu zuen Juan Mari Juaristik:

Institututan, euskara bigarren hizkuntza duten edo deseroso sentiarazten dituen ikasleak, horren poderioz lortzen dute hizkuntza bizi izatea, bizi egiten dute hizkuntza.

Hezkuntzan egin den lanari eskerrak ditugu gaur egun ditugun euskararen ezagutzadatuak. Baina ez naiz hemen zerrendatzen hasiko, hezkuntzaren eremua aztertu dutenek argitara ekarri dituzten kontraesan eta arazoak. Berriki ezagutu dugun Arrue ikerketaren emaitzetan ikusten da argi (atxikimenduaren eta motibazioaren esparruaren barruan, beti ere): euskara batez ere eskolarekin identifikatzen dela, gaztelania gustuko dutenak gehiago direla euskara gustuko dutenak baino...

Euskara herdoildu egin daiteke, gaztearen egunerokoan, eskolako atetik kanpora irteten den unetik aurrera, lekurik ez badu. Gazte horrek eskolakoa beste bizipenik ez badu euskaraz. Bertsoak lagundu dezake hizkuntzaren abanikoa zabaltzen, hizkuntza horrekiko beste era bateko bizipenak sorrarazten.

2.4. ...Baina bertsoaren ezaugarri ez linguistikoak ere, erakargarri dira

Hizkuntza du ardatz bertsoak. Baina, performance bat den heinean, baditu hizkuntzaren eremukoak ez diren hainbat elementu ere. Esango nuke, gainera, gazteen eta bertsolaritzarekiko harremanaren hasieran daudenen kasuan leku berezia hartzen duten elementuak direla. Eta erakarmena dutela.

2.4.1. Bertigoaren erakarmena

Andoni Egañak, “De repente... bertsoa!” jardunaldietan:

Bertsoak badu beste ezaugarri bat, norbera asebetetzen duena, eta da beti presta litekeela eta beti irten litekeela prestatuaren kontrako zerbait .

Nola liteke, ordea, gauzak aurrez pentsatu bezala ez irten, eta, hala ere, asebetetze sentazio bat izatea? Bat-batekotasunarekin, inprobisazioarekin dugun harremanaren misterioak dira horiek. Alanbre gainean joateak duen arriskuak zer mugitzen duen barruan.

Amurizak, *Hitzaren kirol nazionalean*:

Zailtasuna. Arte eta kirol guztien azpian dagoena da hori. Horrek emozioa sorrarazten du, eta emozioa sorrarazten duena ederra dela esaten da.

2.4.2. Jendaurrekotasuna eta bozgorailu natural izaera

Bozgorailu natural bat ematen du bertsoak. Edozein espresio artistikok du sortzaile bat eta hartzzaile bat, komunikazioaren lege unibertsalen barruan. Bertsotan, hartzzailearen figura beste edozein kultur-espresiotan baino funtsezkoagoa da, bertsoaren beraren sormen-prozesuan ere eragiteraino. Bertsoa, hartzzailearik ez badu, haizeak darama, ezerezera doa.

Gaztaroa, nerabezaroa aldaketa ugariaren eta finkatze batzuren garaia dela esan dugu gorago. Ixiar Eizagirre, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko transmisio saileko eragilearen hitzetan,

kontraesan gogor baina eder bat bizi du barruan, borborka irakiten daukan barru horretan: nortasunaren, segurtasunaren bila dabil (lotsa, “erridikulua”, zer esango dute...), baina era berean, jendeari irekitzeko nahia, errekonozitua izatearen sorpresa, esateko beharra, musikarekiko pasioa... Gorputza eta oholtza: lotsa, bertigoa eta erakarmena.

Orain arte aipatu ez dugun elementu bat dator jokora: kantua. Bertsoa kantua da, jendaurrean kantatua. Egañaren iritziz, “kantatutako orok badu indar bat, esanak baino handiagoa”.

Esango nuke, askotan kontrakoa iruditu arren, bertsoaren legeen barruan doinua ezinbesteko izateak, erraztu egin dezakeela bertsoan hasiberri den gaztetxoaren jendaurrerako urratsa. Kantuak neurri bat ezartzen dizu, erritmo bat, noiz hasi eta noiz bukatu markatzen dizu. Esan behar duzun guztia (asko!) molde ia fisiko batzuetara ekarri behar duzula agintzen dizu. Sormena ordenatzen du. Eta hori lagungarri da.

Ondorengoak Zalduondoko eta Gasteizko bertso-eskoletan jasoak dira, hurrenez hurren:

- *Bertsoa gustatzen zait sentimenduak hobeto espresatzen ikasten dudalako. Lotsa kentzen laguntzen du.*
- *Nahi dudana botatzeko eta lasai sentitzeko balio dit bertsoak. Trabarik gabe esateko pentsatzen dudana.*

Asier Lafuentek esana da ondorengoa:

Bertsoak gazteari bere pentsaerak adierazteko aukera ematen dio. Musika talde bat sortzen duenak, bezala, bertsoan ari denak adierazteko askatasuna du, komunikatzeko. Barruan daramana, aldarrikatu nahi duen mundua “esateko” bide bat da.

Juan Mari Juaristi ere bat dator, “De repente... bertsoa!” jardunaldien harira Arabako Hitzan argitaratutako artikuluan:

Bertsoak esateko aukera ematen du, eta gazteak edo nerabeak barruan gordeta duena adierazteko premia sentitzen du helduen munduaren aurrean. Bertsogintza, alde horretatik, gazteari pare-parera datorkion jarduna da ezbairik gabe, bere kezkek eta sentimenduak plazaratzeko aukera eman eta aseta utziko duen ariketa bitxia baita.

Eta Ixiar Eizagirreren aipamena, bukatzeko:

Bertsolaritza injustizia sozialak salatzeko esparru publikoa da. Egungo egoeraz publikoki zure ikuspegia adierazteko aukera ematen du. Oso kalekoa da, hitza hartzeko espazio bat, entzungo dizuten espazio bat.

Goazen gazteengana. Zer erantzuten dute Arabako erdalguneko bertso-eskoletako gazteek, jendaurrean kantatzea gustuko duten edo ez galdetuz gero?

- **Zalduondoko Bertso-eskola:** *segun zein dagoen aurrean, gusturago egoten gara. Jende ezaguna bada, eta taberna giroan bagaude, gustura. Bideo kamerak badaude, mundu guztia zuri begira badago... desberdina da.*
- **Gasteizko Bertso-eskola:** *segun zein dagoen aurrean erosoago egoten naiz. Erosoago nago aurrean jende bertsozalea dagoela baldin badakit, kontua zeri buruz doan badakiena.*

Bertsoaren komunikazio-esparruan hartzaileak betetzen duen papera, feedback-a, hasiera-hasieratik da garrantzitsua. Kantuan hasten den gazteak ez dio pareko hormari kantatzen: bere zinezko helburua da entzuten ari denarekin “konektatzea”. Eta saio baten aurrean, entzulearen jarrera da saioa “nolakoa den” definitzen duen ezaugarri nagusi(en)a.

Jendaurrean egotearen bertigoak baditu bere zertzeladak, beraz. Ez da plazer huts bat, dibertsio totala. Beldurra ematen du, erantzukizun bat dakar. Benetako plazerra feedback-a datorrenean lortzen da. Nolabaiteko elkarrizketan ari dira sortzailea eta hartzailea. Eta, betikora itzulita, hitza da hori dena gauzatzen duena.

2.5. Bertsoa ez da soilik bertsoa: mundu berri bat da

Hurrengo atalean, bertsoak berez dakartzan ezaugarriak alde batera utzita, gehiago jardungo dugu bertso-mugimenduaz, eta bertsoa tresna gisa erabiltzeko gunez; bertso-eskolaz, alegia. Hala ere, komeni da, atal honen amaierako puntu eta hurrengorako zubi gisa balio dezan bada ere, bertsoa ez dela bertsoa soilik argi uztea. Gaur egun, bertsoan hasten denak, mundu berri bat deskubritzen du.

- **Legutioko Bertso-eskola:** *bertsoak balio dit, batez ere, lagunak egiteko.*
- **Zalduondoko Bertso-eskola:** *bertsoa gustatzen zait jende pila bat ezagutzeko balio duelako.*

Sarasuak, *Hiztunpolisa* liburuan, kilker kantari izateaz gain, bertsolariak inurri langile izatea ere aukeratu dezakeela dio. Hau da: bertso-mundura salto egiten duenak ez duela oholtzara bakarrik salto egiten. Baduela aukera oholtzako oholak jartzen hasteko ere.

Gazteengan, kolore berezia hartzen du horrek. Bertsoan hasten denak laster ikusten du ondo antolatutako sistema oso batera sartu dela. Norbere esku dago sistema horrekiko aurrerantzean izango duen inplikazioari neurria jartzea. Baina, ukazina da harremana, hasiera-hasieratik dela kolektiboa. Ixiar Eizagirrereren hitzetan, kuadrilla da erreferente nagusia. Are gehiago: bertsoan hasten denak identifikatuta sentitzen den jendearekin taldea osatzeko beharra du. “Zure klana”. Harremanak, jende berria ezagutzeko grina.

Juan Mari Juaristirentzat ere garrantzitsua da harremanaren izaera kolektibo hori:

Talde giroko lantegi bat da. Joaten dira ez dakit nora eta elkarri lagunduz ataka horretatik irteten dira, eta gainera, gero datoz txapelketak eta sariketak, eta bakoitzak izaten du bere koadrilatxo. Mugitu egiten dira, beste herri batzuetara joaten dira...

Sariketa batera joan eta azkenean parranda egiten dute gazteek hangoekin gehi ez dakit nondik etorri direnekin, eta sekulako sarea sortzen da. Horrekin lotzen dute, eta hor autoelikatzen da, horrek plazerra dakar, sormena, nor izatea, koadrila, parranda...

3. BERTSO-ESKOLAK, EUSKARARERIKO ATXIKIMENDUA LANTZEKO GUNE

3.1. Zer da hau?

Bertsoari erreparatzen jarraituko dut atal honetan. Baina ikuspegia aldatuta, apur bat: bertsoaren bizileku naturalari jarriko diot arreta. Bertso-eskolei, alegia. Espazioa izango dut aztergai, gunea.

Arabako erdalguneko bertso-eskoletara mugatuko dut azterketa, aurrez hartutako bidetik. Bertan modu aktiboan parte hartzen duten gazteengan, bertso-eskolak, gunea gisa, duen eragina aztertzea dut helburu. Azterketa horren ondorio gisa, lanaren sarreran aipatutako tesira iristea nahi nuke: bertso-eskolek, gazteek euskararekiko duten atxikimenduan eragiten dute, modu positiboan.

Xabi Payak, “De repente... bertsoa!” jardunaldien harira esandakoari tiraka jardungo naiz, neurri batean:

Euskal Herrian bi dimentsio daude, euskalduna eta erdalduna. Batetik bestera salto egiteko eta bide luze hori egiteko nik neuk ezagutzen dudan tresnarik onena bertso eskola izan da. Hori bai, bereziki erdalguneeetako bertso eskolek egiten dute hori.

Batetik bestera salto egiten duten asko, beste aldean gelditzen dira, betirako. “Iraunkortasunaren” kontzeptuan sakontzea gustatuko litzaidake. Marka uzten duen esperientzia baten deskribapena izan nahi luke atal honek.

3.2. Zer dira bertso-eskolak?

3.2.1. Definizioz

Definizio murriztegi bat erantsi zaio, tradizioz, bertso-eskolari. Egia da bere ibilbidetxo egin duela bertso-eskolen mugimenduak, joan direla urte batzuk, eta helburuak eta metodologia asko aldatu direla bide horretan. Garai batean, agian, ulertzekoa izan zitekeen hitzaren zentzurik etimologikoenari heltzea: “bertsoa” + “eskola”, alegia, bertsoan egiteko eskola; bertsoan nola egiten den ikasteko eskola. Bertsolaria “berez” sortzen zelako ideiarekin aurka Amurizak eta konpainiak abiatutako gurutzada partikularrean, izan zezakeen zentzurik adiera horrek.

Dena den, bertso-eskolen historian zehar, ez dute bertso-eskola guztiek funtzio hori izan. Bertsoan nola egiten den irakatsi eta ikasi bai, baina zentzu zabalago bat izan dute bertso-eskolek, ia-ia beren ibilbidearen hasieratik. Hizkuntza eta sormena askotan izan ditugu aipagai lan honetan zehar. Jon Sarasuak, “De repente... bertsoa!” jardunaldietan, sortzeko gaitasuna ikuspuntu “herrikoitik” ulertzea ekarri zutela bertso-eskolek adierazi zuen:

Bertso munduak egin duena da sortzeko gaitasuna popularizatu; hau da, sortzeko gaitasuna ez da eliteko gutxi horiena bakarrik, baizik eta sortzea da denok egin dezakegun zerbait.

Ondoren, batzuek aterako zioten etekina sormenerako gaitasun hori lantzeari, plazara salto eginda, baina beste batzuek ez. Hortik doa bertso-eskolen funtzioa, “bertsolari-fabrika” izatearena baino gehiago: norberaren sormena bideratzeko kanal bat proposatzea da helburua, eta, bideratze-lan hori egiteko, tresna erabilgarri baten ezaugarriak irakastea.

Bertso-eskola, horretaz gain, gunea bat da, espazio bat. Bertsoaren bizilekua. Adiera hori agian izan daiteke berriagoa, Bertsozale Elkartean egindako hainbat hausnarketaren ondorio. Oihane Perearen ustez, “bertso-eskola herri bateko bertso ekosistema (bertsolari, bertsozale, gai-jartzaile...) aberasteko gunea da. Bertsoaren transmisioa gauzatzen duen gunea”. Xabi Paya ere bide beretik doa: “Zer da bertso-eskola? Herri batean bertsolariak eta bertsozaleak sortzeko xedea duen erakunde autonomoa”. Biek ala biek aipatzen dituzte bertsozaleak, bertsolariekin batera. Bertso-eskola ez da “bertsolari-fabrika bat”: herri bateko (auzo bateko, hiri baten zati bateko) bertso-mugimendua dinamizatzen duen eta elikatzen duen gunea baizik. Bertsoak herri horretan duen zuzeneko erreferentzia, tokian tokikoa.

Eta bertso-eskoletako gazteentzat, zer da bertso-eskola?

- **Legutioko Bertso-eskola:** *Bertso-eskola kantatzeko eta ondo pasatzeko gune bat da.*
- **Zalduondoko Bertso-eskola:** *Kantatzeko eta ondo pasatzeko lekua. Elkarrekin egotekoa. Batzuetan, entrenatzekoa.*
- **Gasteizko Bertso-eskola:** *Bertsoak kantatzen ikasteko lekua da. Ondo pasatzeko lekua.*

Inork ez dizu esango “bertsolari bihurtzeko” lekua denik (baten batek agian hala pentsatuko du, baina ez da esaten ausartuko). Bertsotan ikastera doaz gazteak bertso-eskolara, hori argi dute. Baina ondo pasatzera eta lagunekin egotera ere badoaz. Puntu horretan zintzilik geratzen zaio bertso-eskolaren adiera etimologikoari bigarren zatia: “eskola”, alegia. Zer esanik ez, gaur egun bertso-eskoletan erabiltzen den metodologiak eta dinamikek lagundu egiten dute gazteengan bertso-eskolari buruz duten irudi hori indartzen. Aisialdiko ekintza da, azken finean, bertsoa, beraientzat. Dibertitzeko leku bat da bertso-eskola.

Aurrerago helduko diogu gaiari zuzenago, baina, jar gaitezen erdalguneko bertso-eskolei begira, une batez. Noski: bertsoaren bizileku baldin bada bertso-eskola, eta Oionen bagaude, euskararen bizileku ere bada bertso-eskola. Funtzio gehigarri bat betetzen du; gehigarri izan arren, funtsezkoa ere baden funtzioa. Juan Mari Juaristirentzat, “bertsolari-fabrika” izatearen aurretik dago funtsezko funtzio hori:

Kontua ez da bertso-eskolatik bertsolariak ateratzea, hori helburuak gehiegi murriztea litzateke. Taldetxoak osatu behar dira, bertsolaritza eta bertsoa lagun giroan bizi. Euskara, bertsoan aritzeko ez ezik, harreman-hizkuntza gisa erabiltzeko indartu behar da lehen-lehenik ingurune erdaldua dugun eskoletan. Ezin da ahaztu guretzat bertsolaritzak betetzen duen euskalduntze funtzioa.

3.2.2. Bertso-eskolaren helburuak

Bertso-mugimenduak erreproduktzioarako duen beste bideetako bat da hezkuntza arautuan aspalditik martxan dagoen “Gu ere bertsoan” proiektua. Bertsolaritza belaunaldiz belaunaldi transmititzeko lehenengo erreferentzia da, hartzaileen adina kontuan hartuta, une honetan.

Hainbat eta hainbat ikastetxetako lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako neska-mutilek jasotzen dute, tailer formatuan, bertsoarekin lehenengo harreman zuzena dakarren ikastaroa.

Kontuan hartu behar da (bereziki Arabako bertso-eskolen kasuan) bertsoarekin lehenengo harremana eskola barruan egitearen hori. Nerabezaroaren atarian bertsoaren nondik norakoak tailerraren bidez ezagutzeak, 13-14 urterekin bertso-eskolan izena emateko bidea irekitzen diete askori. Bertso-eskolan benetan bertsozaletuko dira, edo ez; baina ez datoz zerotik. Ezagutzen dituzte bertsolaritzaren mekanismo nagusienak, badakite gutxi gorabehera nora doazen. Bertso-eskolaren helburuetan, gutxi asko, hezkuntza arautuko proiektuak dituen helburuak islatzen dira.

“Gu ere bertsoan” proiektuaren helburuak zehatz-mehatz daude jasota *Bertsolaritzaren curriculum-a lehen hezkuntzan* lanean. Ikasleen kompetentzien arabera jartzen dira helburuak, eta kompetentzia horiek hiru mailatan antolatzen dira:

1. Gaitasun mailan:

- Bertsolaritza den kultur adierazpidearekiko oinarrizko ezagutza izatea
- Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia garatzea
- Jende aurreko emanaldi bat burutzeko oinarrizko betekizunak ezagutzea eta egoki baliatzea
- Taldean harreman onak sustatzea

2. Pertsona mailan:

- Bertsozaletzea eta euskararekiko jarrera positiboa izatea

3. Ikastetxe/herri mailan:

- Ikastetxean/herrian bertsozaletasuna eta bertsolaritza sustatzea

“Gaitasun maila” eta “pertsona maila” azaltzea espero izatekoa da. Baina adierazgarria da hirugarren maila batek, kolektiboak (pertsona maila guztiz gainditzen duenak) lekua izatea curriculum-ean, eta helburu espezifiko bat ezartzea horretarako. Bertsolari-fabrikatik urrun gaude, beraz.

Herrian bertsozaletasuna eta bertsolaritza sustatzea zubi-helburu da. Hor lotzen dira, estuki, hezkuntza arautuko ‘Gu ere bertsoan’ proiektua eta herriko bertso-eskola. Batak bestea

elikatzen du, baina ez hotz-hotzean, modu berezi batean baizik: protagonistak, “protagonistago” dira, eskolatik irten eta bertso-eskolarako pausoa ematen dutenean. “Nor” dira herri horretako bertso-ekosisteman. Beraien erantzukizuna da herri horretan bertsoak aurrerantzean izango duen presentzia.

Eta, zergatik ez, erdalguneko bertso-eskolen kasuan, euskarak herri horretan aurrerantzean izango duen ekosisteman ere, presentzia izango dute. Protagonista izango dira; eragile bihurtuko dira.

3.2.3. Bertso-eskoletako metodologia

Galdera, bertso-eskoletako ikasleei: bertso-eskolak lana ematen al du? Ikastera al zoazte bertso-eskolara?

Erantzunak:

- **Legutioko Bertso-eskola:** *Bertso eskolak ez du lanik eskatzen zuzenean. Norbere buruari jartzen zaio lana.*
- **Zalduondoko Bertso-eskola:** *Bertsotan ikastea ez da zaila. Ez du lanik eskatzen, esfortzua bai.*
- **Gasteizko Bertso-eskola:** *Hobetu nahi baduzu, doinuak ikasi... esfortzu bat egin behar da. Baina hona gatozenean ez gatoz lanera. Ez gatoz sentsazio horrekin.*

Bertso-eskolara doazen gazteek guztiz barneratuta dute bertsoaren ikaskuntza prozesua aisialdiko ekintza bat dela. Ondo pasatzera datoz. “Eskola” berezia da bertso-eskola. Gune berezia. Andoni Egañak bat egin zuen horrekin, “De repente... bertsoa!” jardunaldietan:

Bertsoa nagusiki jolasa da, eta jolasa den neurrian, hezkuntza araututik urrun sumatzen dugu.

Bota, gozatu, konpartitu eta ebaluaketatik kanpo geratzen da askotan.

Zaila da bertso-eskoletarako metodologia orokor bat zehaztea. Bertso-eskoletako arduradunek beren nahierara moldatzen dute eskolak garatzeko modua, taldearen helburuen, adinaren eta dinamikaren arabera. Bertsotan egiten irakasten da, hori argi dago. Gaian gehiago sakondu nahi duenak, kontsultagai du bertso-eskoletako irakasleentzat tresna erabilgarria den

Bertso-gida, Bertsozale Elkartearen eskutik argitaratua. Era guztietako ariketak, teknikak, proposamenak, daude bilduta bertan, txukun.

Lan honetarako, nahikoa da jakinda proposatzen diren ariketak eta teknikak proposatuta ere, zein tonutan proposatzen diren. Arabako bertso-eskolen kasuan (bai gazteen eta umeen kasuan), jolasa da nagusi. Ez jolasa dinamika gisa; jolasa “eskolen tonu” gisa baizik. Dibertsioa da helburu behinena (baldin eta parean eskolarteko txapelketarik ez badago; orduan, entrenamendukutsua hartzen du eskolak, beste helburu batzuk gailentzen dira).

Karlos Aizpuruak, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Iker taldeko langileak, “De repente... bertsoa!” jardunaldietako mahai-inguru batean, ekarpenen aldian, bertso-eskoletan gozamenak duen garrantzia ekarri zuen harira, inguruan duen kasu partikular bati erreferentzia eginez:

Garaziko lizeoan, ez dena Seaskakoa, gure garaiko B eredu kaxkar bat dena, han gozatu egiten dute euskal antzerkiarekin. Tailer bat muntatua da urte guztiz, Antton Luku da bertako irakaslea (ez da kasualitatea), eta horri esker, urteetan, bertso txapelketako finalera, BECera, ikasleak joaten ziren, ikusten zutelako tipoak flipatzen zuela bertso bat jarrita edo DVDa jarrita bertsolariak entzuten. Lagun batzuk esana: “hori ikusten genuen, hor, eta erraten genuen, hor baduk zerbait”. Bertso-eskolek beharbada hori eskaintzen dute, batetik, gozatzen dutelako, antzerkiarekin egiten duena Lukuk, eta txikiek sortzen dute beraien hizkuntzan, euskalkian, alegia. Hor badute gozamina, ikastolan testu-liburu batekin ez dutena.

3.3. Erdalguneko bertso-eskolak

3.3.1. Alderik ba al dago “euskalgunekoekin”?

Izenburuko galdera, agian, haratago ere badoa: ba al dago “erdalguneko bertso-eskolarik”? Ba al dago nahikoa arrazoi, eremu soziolinguistikoa irizpide gisa erabilia, batzuk eta besteak bereizteko? Ba al dute ezaugarri berezirik euskarak presentzia urria duten eremuko bertso-eskolek?

Irati Lotinak, Arabako bertso-mugimenduaren historia jasotzen duen *Araba, bertso histori ezberdin bat* liburuan, Arabako bertso-eskolei leku berezia aitortzen die. Beste eremu soziolinguistiko batean nekez irakurriko genukeen iritzia da ondorengoa:

Gurea bezalako herrialde batean, eskola eta kokalekua zein inguruaren arabera, zenbaitetan, hizkuntza bera bilakatzen da arazo. Beste batzuetan, bertsolaritzaz ez dute inoiz ezer entzun haurrek, oso urrutiko zerbait da beraientzat, horrela, esanguratasuna bilatu behar diozu gaiari, euren errealitatera hurbildu, zerbait erabilgarritzat, motibagarritzat izan dezaten. Arabak duen errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta, ahozko hizkuntzak gabezia nabariak dituela esan dezakegu, zalantzarik gabe. Eta gure lana hori bultzatzea da, haur eta gazteek euskara erabiltzea, hain zuzen ere, ahozkotasunean trebatzea.

Xabi Payak ere argi esan zuen, “De repente... bertsoa!” jardunaldietan:

Nik ulertuko nuke bertso-eskolak sortzea ingurune euskaldunean, baina euskara indartsu ez dagoen tokian bertso eskola izan behar da intentzio bereziko ahalegin bat. Erdalguneko bertso eskolen testuingurua erabat ezberdina da (...) Akaso Gasteiz batean ez da komeni esatea bertso eskolak direla bertsolariak sortzeko guneak. Bertso eskolak izan daitezke erraz asko sormena lantzeko, euskaraz bizitzeko eta euskal kultura transmititzeko guneak. Eta horrek erakusten du sormen guneak direla azken finean. Euskararen erabilera esanguratsua bultzatzen dute, hain inportantea dena.

Asier Lafuenteren ustez, bertso-eskola batean bi elementuk egiten dute bat: espresio kulturalak, eta euskararen erabilerak. Eta, erdalguneko bertso-eskoletan, litekeena da pisua hizkuntzaren osagaietara edo ikuspuntura joatea, askotan.

Oihane Perek leku berezia ematen dio bertso-eskolari, erdalguneko aisialdi-eskaintza orokorrean: euskarak natural funtzionatzen duen eremu batean, futbola eta bertso-eskola maila

berean egon daitezke: aisialdiko bi jarduera ezberdin izan daitezke gaztearentzat, besterik gabe. Baina, erdalgunean, bertso-eskolak hartzen du beste kolore bat, beste intentzio bat, funtzio bat:

Agian, diferentzia dago bertso-eskolarekiko atxikimenduan. Erdalguneko bertso eskoletan erakargarri bakarra ez da bertsoa, huts hutsean. Badaude bertso eskolak eman ditzakeen beste gauza batzuk, besteek ematen ez dituztenak: euskaraz funtzionatzen duen jendea... Euskalguneko bertso eskolan bertsoa da, bere horretan. Erdalgunean ez da bertsoa batzen dituen bakarra: lagunak, beste ezaugarri batzuk... Gure umek esaten dute: bertso eskolan dagoen jendea bezalakorik inon ez dut ezagutu, ez nire inguruan, edo nire eskolan...

Argi dago badagoela aldea erdalguneko eta euskalguneko bertso-eskolen artean. Bai, behintzat, bertso-eskola hori sustatu edo martxan jarri dutenen intentzionalitatean. Nahi bada, erdalguneko bertso-eskola batek duen irudia, kanpotik begiratuta, horixe da: euskara ezinbestekoa den leku bat, euskaraz modu naturalean funtzionatzen den espazio bat. Hizkuntza-ukipen egoeretan, horrek bere garrantzia baduela ezin ukatukoa da.

Ikuspegi horrek bidea irekitzen digu beste ertz bati heltzeko. Intentzinoa hori bada, hau da, bertso-eskola bat “euskararen gune” gisa funtzionatu dezan sortzen bada (nahiz eta helburu nagusia hori ez izan), horrek ba al du islarik bertso-eskolaren barruko funtzionamenduan? Euskara (aspektu guztietan: ezagutzan, erabileran, motibazioan) lantzeko zerbait espezifiko egiten al da erdalguneko bertso-eskoletan?

3.3.2. *Aisialdian euskararen erabilera lantzeko estrategiak*

Ez gara aisialdia euskalduntzeko tekniken itsaso zabalean sartuko. Lan handia egin dute, adibidez, Lasarteko Ttakun Elkartek, Urtxintxa Begirale Eskolak edo EBETE bezalako erakundeek, eremu horretan euskararen erabilera modu eraginkorrean lantzeko estrategiak proposatzerako orduan.

Besterik gabe, aipatzea ez dago soberan: begiralearen edo taldearen arduradunak funtsezko papera du proposatzen diren eskuhartze teknika guztietan. Ume, gaztetxo eta gazteentzako interlokutore euskaldun garrantzitsu bat izateaz gain, askotan hizkuntza-irizpide garbiak dituen kide bakarrenetakoa izaten da taldean. Bera da taldeko erreferentzia linguistikoa. Bere esku dago, neurri batean, taldean egingo den hizkuntzen kudeaketa.

Ez naiz aginduak emateaz ari, edo modu autoritarioan jokatzeari (gaztelaniaz egitearen debekua ezartzeaz, eta parekoez). Lider izaeraz ari naiz. Erakutsi beharreko jarreraz.

Hain zuzen ere, paper horixe legokioke, irizpide horiei jarraituta, erdalguneko aisialdiko ekintza baten ardura duen begirale/irakasle/arduradunari. Baita bertso-eskolako irakasleari ere.

Eta? Bertso-eskolako irakasleak ba al du kudeatzaile izaera hori erakutsi beharrik? Ala desberdina da horretan ere?

Xabi Payak, “De repente... bertsoa!” jardunaldietan, ireki zuen galdera horri erantzuna emateko bidea:

Aisialdiko legea: ekintza batek eragiten duen plazerraren intentsitatea handiagoa bada ekintza hori euskaraz egiteko ahalegina baino, norbanakoak euskaraz egingo du. Bertso eskolara joan eta bertsoan egitea gustatzen bazaizu, eta gainera, tokatu zaizun irakaslea jatorra bada edo guapoa, eta jarduna bera motibagarria bada, eta horren guztiaren pisua baldin bada euskaraz egiteko ahaleginaren intentsitatea baino handiagoa, orduan argi dago balantzak ahalegina egitera eramango nauela.

3.3.3. Euskara da bide, eta hala izan behar du

Oier Suarez da, une honetan, Zalduondoko Bertso-eskolako irakaslea. Bere esanetan, bertso-eskolara joaten direnek beraien artean euskaraz egin dezaten ez du ezer espezifikorik egiten. Batzuetan zuzenketaren bat, edo gaztelaniazko esaldiren batek “ihes” egiten badie keinuren bat... Baina oso gutxitan.

Oihane Perearen ustez “hizkuntza filtro bat da bertsoan. Ez dut ezer espezifikorik egiten, berez dator”. Iñaki Viñaspreren esanetan “Inguru bat eskaintzen diozu, ikasleari, jarduera bat euskaraz garatzeko. Harremanak, jendea, giroa eskaintzen dituzu. Afektibitate bat garatzen duzu, hizkuntzarekiko”. Uxue Diaz de Cerioren esanetan “Euskaraz bakarrik egin daitekeen zerbait da bertsoa. Horixe dauka.”.

Beraz, erdalguneko bertso-eskolen helburu bat ez da euskara lantzea? Ala bai?

- **Oihane Perea:** *Bertso-eskola euskarazko sorkuntza lantzeko leku bat da. Baina sormena da helburu behinena. norbaitek euskaraz akatsen bat egiten badu, zuzendu egin behar da. Baina ez euskaraz delako, ondo hitz egin behar delako baizik.*

- **Iñaki Viñaspre:** *Helburua ez da euskara lantzea, baina berarekin dator. Ezinbestekoa da.*

Erdalguneko bertso-eskoletan, euskara bidea da; bide bakarra, baina bidea. Helburua (gorago aipatutakoari tiraka) sormena lantzea da, eta sormen horri irteera eroso bat ematea. Sormenaren bidez komunikazio egoki baterako teknika-sorta bat lantzea.

Xabi Paya, derrepente bertsoa:

Bertso eskola bat euskalgintzaren parte da, baina bere helburua ez da euskara sustatzea. Euskara sustatzea baldin bada bere helburu nagusia, bertso eskola hori gaizki ari da. Euskara izan behar da tresna, bidea, ez helburua. Helburua izan dadila ume horren gurasoentzat, “horrela euskara hobetuko du..”, baina ume horrek ezin du sentitu “begira ze ondo, euskararen oasi honetan nago, euskara erabiltzen...” (...) Helburua ez dadila izan euskara, eta orduan euskararen erabilera hori esanguratsua izango da (...) Soilik helburu horrekin izango dira bertso-eskolak normalizaziorako gune iraunkorrak.

Erdalguneko bertso-eskola batek euskararekiko atxikimenduan eragiteko modurik onena, beraz, horixe da: bertsoak berez dakarren balio erantsia, euskaraz soilik existitzearena, ez espezifikatzea. Erramintari erraminta-izaera besterik ez ematea. Ondoren etorriko dira albo-mesedeak eta onurak.

3.4. Bertso-eskola: ohartu gabe, kontzientzia hartu

3.4.1. Hara! Euskaraz ari gara eta!

Hizkuntza-hauturako bidea, lan honetara ekarri dugun Lorea Agirrereren aipuaren bidetik, urrun dago bide zuzen eta garbia izatetik. Gehiago du labirintotik eta sasi arteko bidexkatik. Eta, esango nuke, inguruak agintzen duela asko bidea aukeratzen, baina norberari barruak agintzen diotak ere baduela zeresana.

Bertso-eskolara sartzen den erdalguneko gazteak bidegurutze galanta du aurrean, hizkuntzaren ikuspegitik (erretratu-robotarekin jarraituko dugu, horrek dakarren arriskuarekin) :

- Gaztelania nagusi den ingurune batetik dator bertso-eskolara. Gaztelania da bere ohiko hizkuntza-jarduna, eskola-orduetan egiten duena kenduta. Ahaztu eskolaz: kaleari buruz ari gara. Une honetan, bertso-eskolako atean dago. Barrura sartu da. Bere kuadrillako bi eta hain harreman esturik ez duen beste bi daude barruan. Eta irakaslea, noski. Berdin dio zein hizkuntzatan egiten duen bertso-kideekin kalean: bertso-eskolan euskaraz egingo du. Bai, gutxienez, bertsoan ari denean. Eta, gainera, nahiko modu oharkabean egingo du aldaketa hori (txipa aldatuko “zaio”). Izan ere, bertso-eskolan zein hizkuntzatan aritzen den galdetzen diotenean (adibidez, ikerketa-lan astun bat egiten ari den inguruko norbaitek), harrituta erantzungo dio “euskaraz, noski”. Galdetzea bera soberan balego bezala.
- Gaztea da. Posible da hizkuntza-hautua finkatzen aritzea une honetan. Orain arte, ez da ohartu zein hizkuntza erabiltzen duen egunerokoan. Ateratzen zaiona egin du, aurrean duen interlokutorearen arabera, beti ere (irakaslea, ama/aita, laguna, dendaria). Baina, orain, erne zaio kezka bat, eta horretaz pentsatzen hasi da. Zergatik bat erabili, bestea hor dagoenean... Badu barruan gehiegi erabiltzen ez duen hizkuntza horrekiko atxikimendu bat, berea dela sentitzen du, baina kosta egiten zaio mingaina dantzan jartzea...

Ez da beti gertatzen, noski. Baina bertso-eskolak eman dezake, batzuetan, hizkuntza-hautua egiterakoan, ingurune berezi bat. Gazteak euskara erabiltzeko beharraz, edo euskarari dioten atxikimenduaz kontzientzia hartzen hasten direnean, ohartu gabe euskara natural

erabiltzen duten ingurune bat izatea garrantzitsua izan daiteke. Oharkabe doanaren arabera hartzen ditugu ondoren erabakiak. Oharkabe doanak lagundu diezaguke gauza batzuekin ohartzen.

Oihane Pereak hala dio, esperientziak bizkarrean jarri dion motxilan oinarrituta:

15 urterekin erdaraz hitz egiten genuen gure artean, oso kontziente izan arren. Eta bertsoak ematen dizu aukera, kontzientzia hartzeko eta bide bat irekitzeko, ondo pasatuz. Erabaki drastikoak hartu beharrean, bizitzan, halako liberazio moduko bat ekartzen du. Modu positiboan.

3.4.2. *Albo-kalterik ez: albo-mesedeak*

Erdalguneko bertso-eskola batean sartzeak euskararekiko harreman berri bat abiatzea dakar. Nahiko argi ikusi dugu hori, eta orain artekoari errepaso bat emanda argiago ikus daiteke. Bertso-eskolaren bidez euskararekin jolas egin duenak, hizkuntza bihurritu duenak, edo gauzak esateko beste modu bati bueltaka aritu denak, beste modu batean ikusten du mingainean duen hizkuntza. Atxikimendu ezberdin bat eransten dio hizkuntzari. Edo, nahi bada, aurretik gordea zuen atxikimendua azaleratu egiten da, nolabait; eta baita handitu ere, bertso-eskolan bizi duena bizipen positiboa edo dibertigarria bada.

Horrek ez dakar kalterik, edo albo-kalterik. Ekartzekotan, albo-mesedeak dakartza. Hori bai: bertso-eskolaren helburuetatik eta metodologiatik kanpo geratzen dira balizko albo-mesede horiek. Hitzunaren edo hitzun-taldearen borondatearen eremuan sartzen gara, erabat.

- **Euskaraz, gehiago**

“Bertso-eskolan zabiltzatenetik, euskaraz gehiago egiten duzue?” galderari emandako erantzunak dira ondorengoak:

- **Legutioko Bertso-eskola:** *Bai. Bertsotan hasi naizenetik euskaraz gehiago hitz egiten dut.*

- **Zalduondoko Bertso-eskola:** *Bertso eskolak lagundu dezake euskaraz gehiago egiten, baina hori ez da bertso eskolara joateko arrazoia. Baina bertso-eskolara gatozenetik euskaraz gehiago egiten dugu, dudarik gabe.*

Erika Lagomak, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko transmisio saileko eragileetako batek, harreman-sarean izandako aldaketaren testigantza ekarri zuen, “De repente... bertsoa!” jardunaldietara:

Bertso eskola batean, Iruñean, nire ikasleak gazteleraz mintzatuz etortzen ziren bertso-eskolara. Atea gurutzatu, eta euskaraz egiten zuten bertso-eskolan, atea gurutzatu eta gazteleraz jarraitzen zuten beraien artean. Baina, denbora pasatu ahala, talde hori euskaldun bihurtu zen eta harremanak euskaraz izan zituzten aurrerantzean. Bertso eskolak hizkuntza ohiturak eraldatzeko ahalmena du, eta horregatik oso garrantzitsua da.

Atarikoan kontatutako Debagoieneko kuadrillaren kasua baino sinesgarriago egiten zait Erika Lagomak kontatutakoa. Baina, hala ere, kasuistikaren barruan kokatuko nuke. Bertso-eskolak bere kideek euskararekin duten harremana aldatu dezake, baina bertso-eskolaren eraginez hiztun-hautua aldatzen dela segurtatzea zaila da. Tentuz ibili beharrekoa, Legution eta Zalduondon kontrakoa dioten arren.

Hala ere, harremanen nolakotasunak baldintzatu dezake aurreko ahapaldian esana. Ez da herrietako kasurik arruntena, baina gerta daiteke, hirigunean (Gasteizen, Laudion...) bertso-eskola izatea harreman berriak egiteko gune. Aurrez ezagutzen ez zuten jendea ezagutzeko aukera dute, bertso-eskolaren bidez, bertako kideek. Orduan bai: harreman berri hori euskaraz izango da. Zaila da ehuneko ehunean hala izango dela bermatzea, baina harremana bera egiteko bidea bertsoa izan bada, euskara erantsita dakar, lapatuta.

Berriz diot: hiztunaren harreman-sarearen eta borondatearen eremuan ari gara; eremu labainkorra, inondik ere. Bertso-eskolan euskararekin duzun harremana aldatzen baduzu, errazagoa izango zaizu euskara gehiago erabiltzea. Gainera, bertso-eskolaren bidez harreman berriak egiten badituzu, euskara erantsita dakarren jende gehiago ezagutzen baduzu, bai, gehiago ariko zara euskaraz.

- **Euskaraz, hobeto**

- **Legutioko Bertso-eskola:** *euskara hobetzen lagundu egiten du bertsoak. Elikatu egiten du hizkuntza.*
- **Zalduondoko Bertso-eskola:** *asko laguntzen du, pila bat, dudarik gabe. Aberastu egiten du, askatasun gehiagorekin erabiltzeko bidea ematen du. Bertso eskolan hasi garenetik hobeto hitz egiten dugu euskaraz.*
- **Gasteizko Bertso-eskola:** *Bai, dudarik gabe. Hiztegia askoz ugariagoa da. Errimak bilatu behar dituzu, lan egin... Bertsolaritzak behartu egiten zaitu hizkuntza hobetzera, inkontzienteki egiten duzu.*

Erabileraren kasuan baino zalantza gutxiago dago kasu honetan. Bertso-eskolaren albo-mesede nabarienetako bat da bertako kideen ahozko euskararen kalitatea hobetzea. Erreferentziak ezagutuz, hizkuntza bihurrituz eta behar den moldeetara tolesten saiatuz, hizkuntzaren tripak ikertzen dira. Eta ikasi egiten da. Bertso-eskolara doan erdalguneko gazteak bere euskara hobetzen du.

Ez daude horrekin ados bertso-eskolako kideak bakarrik. Gaia aztertu dutenak ere bat datoz. Xabi Payarena da ondorengo aipua:

Zer eman diote bertso eskolek erdal munduari? Euskal hiztun osoenak eratzeko arnaguneak. Euskara eskolan ikasten duena euskaldun izan liteke eta euskaraz biziko da, baina euskal hiztun oso, benetan sentitzeko eroso, ezberdintzeko hainbat erregistro, lasai ibiltzeko euskal munduan barna, karneta bertso eskolan lor daiteke.

Juan Mari Juaristik euskara mailaren hobekuntzaren lekukotasunak nabarmenak direla dio:

Kaleko hizkeraren erregistroak ezagutzea, adarra jotzen asmatzea, txistek hitzetik hortzera botatzeko gaitasuna izatea, azkar erantzutea handiagoa botaz... azken finean euskaraz lasai jardutea hizkuntzaz gehiegi pentsatu gabe (erdaraz bezala). Hori, jardunean ikasten da, eta ikasi dute Araban gurera hurbildu diren gazteek.

Iñaki Viñaspre ere bide beretik doa:

Egiten hobetu egiten da, eta hauek egin egiten dute. Loturak dituzte beste jende batekin, eta landu egiten dute. Konkreziara jota, bertsoak ematen ditu teknika batzuk: esaldiaren ordena aldatzera behartzen zaitu, errimatze aditzak ekartzera... Gauzak ematerako orduan aukerak zabaltzen dizkizu: gauzak modu bakarrean esatetik, zazpi modutara esan daitezkeela konturatzera pasatzen zara.

3.5. BERTSO-ESKOLAK ARABAN: EKOSISTEMA BATEN PARTAIDE AKTIBO

Bertso-eskolaren lau hormetatik kanpora aterako gara lanaren azkeneko zati honetan.

Bertsoaren mugimendua, une honetan, zerbait bada, ondo antolatutako mugimendu bat da. Bertsozale Elkarte bezalako erakunde gutxi ezagutzen ditugu inguruan, kulturaren eremuan. Mugimendutik bertatik sortutako erakunde auto-antolatu indartsua da Elkarte. Eta tokian tokiko erakunde autonomoak dira bertso-eskolak.

Hiztun komunitatearen kontzeptua aterako da azken atal honetan, aurrekoetan baino gehiago. Taldera joko dugu, norbanakora baino gehiago.

Jon Sarasuak, “De repente... bertsoa!” jardunaldietan:

Non erreproduzitzen da benetan euskaldun izateko gogo koherente eta kontzientea? Oso zirkuitu jakinetan erreproduzitzen da. Eta gehiago esango nuke: zirkuitu jakin horiek ez dauden lekuetan hizkuntza transmititzen da, baina ez da erreproduzitzen hiztun hautu hori, neurri handi batean.

Bertso-mugimenduan aktiboki parte hartzen duen gazteak (ez bertso-eskoletan dabilzan gazte guztiek, inurri langile izatea aukeratzen dutenek baizik) hiztun hautua egin duela erakusten dio hiztun komunitateari. Kasu askotan, bertso-eskolan aldatu du hizkuntzarekiko aurrez finkatuta zuen harremana. Ondoren, bertso-eskolak bide eman dio hizkuntza hori beste modu batera, hobeto, gehiago... erabiltzeko. Eta, bukatzeko, bere burua eskaini dio hiztun komunitateari, euskara natural erabiltzen duen erreferente gisa.

Hala jarraitzen du Jon Sarasuak:

Nik esango nuke bertso mugimendua dela faktore positiboetako bat, azken hamarraldietan eragin duena motibazioan, eta sortu dituen zirkuitu batzuk, hiztun komunitatearentzat bizigarriak izan direnak, eta leku askotan bizigarria baino gehiago legami edo hazgarri berezia izan direnak hiztun komunitatearentzat. Bertso eskolak bezalako gizarte-ehunak konplizitatea sortzeko eta eraikitzeko zirkuitu berezi horiek funtsezkoak dira, familiak ere gero eta gehiago bere funtzioa galdu duelako neurri batean.

Eta Lorea Agirrek beste dimentsio bat eman zion, identitatearena, hain zuzen ere, bertsolaritzaren kolektiboko kideen motibazioak deskribatzerako orduan:

Ez kontzientzia bakarrik, jakina. Baita ere identitatea. Kultur mundu honetan banabil, hizkuntza ere beharko dut, jakina, eta hizkuntza badut, hizkuntza horrek beharko du bere kultura bat. Hori da identitatea elikatzen duena.

Bertso-mugimenduak kide berri bat irabazten duen unean, euskarak kide berri bat irabaziko du, ados. Baina garrantzitsuagoa da ondorengoa: hiztun komunitateak kide iraunkor bat irabaziko du. Eta, gainera, erreferente izateko aukera handia du.

3.5.1. Tokian tokiko sarea

Maialen Lujanbiok, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen 25. Urteurrenaren harira argitaratutako *Beste larogei urtian* argitalpenean, bertso-eskolen sare-izaerari ematen dio garrantzia:

Bertso eskolek, nire ustez, sarea izan behar dute. Bertso eskolak dira, azken finean, herriz herriko bertsolaritzaren oinarria. Ez bakarrik bertsolaritzaren transmisioan, baita herriko ekimenetan, antolakuntza mailan eta horrelakoetan ere.

Berriz ere esango dugu: erdalgunean beste balio erantsi bat du horrek. Euskalgintzaren tokian tokiko sarearen parte dira bertso-eskolak, duten funtzioari kasu eginda. Xabi Payaren esanetan, bertso-eskolak erdalguneko “langune soziokulturalak” dira. Jon Sarasuaren ustez, “bertsoak komunitate-sare txikiak sortzen ditu leku batzuetan, konplizitateak, protagonismo barreiatuak, gozamen uneak, belaunaldien arteko dinamika batzuk. Erdalguneko bertso-eskolako kideak herritarrentzat erreferente dira; baita erakundeentzat ere, eta baita euskalgintzaren inguruan dabilzan gainontzeko elkarteentzat ere.

3.5.2. Eta Araban?

Inon irakurri izan dut, Arabako bertsokera berezia ote den. Bertsotan egiteko modua bera.

Nik ez nuke hala denik esango. Baina bai, Arabako bertso-mugimenduak baduela ezaugarri definitorio bat, kanpotik begiratuta ere nabarmentzen dena.

Erika Lagomaren ustez, “Arabian denok duzue elkarren berri, eta uste dut horregatik lortu duzuela urte hauetan lortu duzuen hori. Elkarrekintza.”

Iñaki Viñaspre eta Oihane Perearen aipuak doaz ondoren, hurrenez hurren:

Bertso eskoletan dabilzan umeez bi mundu ezberdin dituzte: bertsoena, eta bestea. Eta bertsoena berezia da (...) Arabako bertso eskolak ez lehiakorrak eta inklusiboak dira. Hori ezaugarri bat dela esango nuke. Lehiakorra ez izateak engantxatu egiten ditu: edozein onartzen dugu eta edozein nahi dugu. Inork ez zaitu epaitzen. Taldearen garrantzia hori bada Arabako ezaugarri bat.

Arabako bertso eskolen artean, bertso eskoletan beraietan, enpatia dago. Eta hori ez da erraza beste leku batzuetan aurkitzen. Eta enpatia eskertu egiten dute gazteek (...) Askok entzuten dugu: „bertso munduan aurkitu dudak bezalako jenderik ez dut inon aurkitu“.

Taldea beti da norbanakoa baino ikusgarriago. Euskal hiztun komunitatearen aurrean, azken urteotan, presentzia handia irabazi du Arabako bertso-kolektiboak. Kultur adierazpiderik aktiboen eta horizontalenetakoa bihurtu da bertsoa Arabian. Eskuraerraza, hurbilekoa, elitetik gutxi duena. Taldekoa.

4. AMAIERAKOAK

Ez dut lanik hartuko abiapuntuko intuizio eta elkarrizketetatik ateratako tesiak frogatuzat jotzen ditudala azaltzen. Lanaren bi atalek, beren luze-zabalean, horixe izan dute helburu. Hala ere, esan dezadan nire uste eta proposamenek baino pisu handiagoa dutela elkarrizketatutako bertso-eskoletan entzundakoek. Arabako bertso-munduko partaide gazteak daude zurrunbiloaren erdian, beraiek pentsatzen dutena da, hitzez hitz edo zeharka, hona ekarri dudana. Eta beraiek dira, hain zuzen ere, intuizioak tesi defendagarri bihurtarazi dizkידatenak.

Ñabardurak egitea, hala ere, beti da beharrezkoa. Zer edo zertan lagundu badidate, gazteok, usteak fintzen eta hasiera bateko proposamenak estutzen izan da. Araban, erdalgunean, bertso-eskolek paper garrantzitsua dute euskararen biziberritze prozesuan. Askotan, funtsezkoa. Baina, praktikan, egunerokoan, zertan eragiten dute “benetan”? Zein da bertso-eskolek duten ageriko eragina, gazteek euskararekiko duten harremanean?

Agian, horixe izan da lan honetan izan dudana atakarik estuena. Bertso-eskolek euskararen erabileran zuzeneko eragina dutela esatea gehiegixoa esatea dela adierazi dut lanaren une batean. Eta denok gara erabilera gose: gazteak kalean euskaraz bixi-bixi hizketan entzun nahi ditugu. Uste zabaldua da: “bai, nahi duzun guztia: badakite, euskara gustuko dute, maite dute, euskaldun sentitzen dira, baina gero ez dute egiten”. Ageriko eraginik ez duten estrategia eta ekimenei egin ohi zaien kritika ohikoena, horixe.

Parametro horietan neurtuz gero, bertso-eskolek euskararen normalizazioan duten eragina urria da, oro har. Bertso-eskolara doan gaztea ez da, ikasturtearen amaieran, euskal hiztun aktibo bihurtzen, automatikoki. Bertso-eskolak ez du bermatzen bertako partaideek ahal duten guztietan egingo dutenik euskaraz.

Hor dago koska. Ondoren agerikoa izan dadin, aurretik gordean, tripetan, eman behar zaiola buelta tortillari. Eta hor du, nire ustez, bere papera bertso-eskolak. Gazteak, oro har hizkuntzarekiko, eta bereziki euskararekiko, aurretik zuen harremana aldatzen duela. Bi arrazoiengatik gertatzen da hori: bertsoak, bertso-eskolako lan-tresnak, horretarako aukera erakargarriak ematen dituelako; eta bertso-eskola bera, espazio gisa, euskararekiko harremana lantzeko gune berezia delako.

Euskararekiko atxikimendu pobrea, harreman behartua, erlazio urruna duen gazteak nekez egingo du erabilerarako jauzia (nekez igaroko du euskararen “stargate”-a, Xabi Payaren “hizkeran”). Bertsoak harreman hori aldatzen laguntzen du.

Badago ahaztu ezin den beste ikuspegi bat, agian erabilerarekin zuzenago lotua, eta lan honetan nahi baino leku gutxiago eskaini diodana. Azkarregi esan dut bertso-munduak ez duela erabileran zuzenean (agerian) eragiten. Eragiten du, bai: harreman-sare trinko eta dinamiko bat eskaintzen duelako, batez ere. Arabako bereizgarri gisa ere har genezake, bertsoak gazteen arteko euskarazko harremanak sartzeko erakutsi duen gaitasuna. Bertsoa, zerbait bada, modu kolektiboan ulertzen den espresio-bide bat da Araban. Bertsoak bertsokideak esan nahi du, lagunak, harreman estuak. Euskaraz erlazionatzea beste erremediorik ez duen jende-talde espezial bat.

Hankak lurrean jar ditzagun une batez. Txepetxen motibazioaren edukiontzian gabiltza igerian. Bertso-eskolak edukiontzi hori gehiago betetzeko, eta are gainezka eginarazteko gune bereziak direla esango nuke. Hala ere, ez dut hain argi motibazio-atxikimendu hori likidoegia ez oten den, askotan. Bertsoak gaztetan harrapatzen bazaitu, marka uzten du: horixe esan dut lan honetan. Marka batzuk betirako izaten dira, beste batzuk ez. Era berean, atxikimenduak gora-beherak izan ditzake: bizitzan gauza asko gertatzen dira, harremanak aldatu, gu aldatu.

Hala eta guztiz ere, esango nuke fidela dela bertso-munduan muturra sartzen duena. Zuzenean mugimenduaren erdigunean mantentzen ez badaude ere, inguruan jiraka dabiltzanak asko dira. Baita noizbehinkako sartu-irtenak egiten dituztenak ere. Eta bertsoa hizkuntzarekin egiteko gai den guztiaz ohartzen bazara, nahiz eta egunero ez izan, hizkuntzarekiko duzun harremana berezia da. Utz dezagun hor.

Bukatzeko: bertsoa erdalguneko aisialdian. Ez dakit noraino garen kontziente, normalizazio, biziberritze, berreskuratze lanetan gabiltzanok, bertsolaritzak gure lanean izan dezakeen izaera estrategikoaz. Bertsoa aipatzen duenak, zirkulu jakin batzuetan, “folklore-kultura-tradizio” jaso dezake erantzun gisa. Edo, aurrez aipatua berriro ekarriz, erabileran eragin murrizta duen espresio soil dela entzun dezake.

Zaila dago aurkitzen, erdalguneko aisialdi eskaintzan, euskararen normalizazioaren ikuspegitik, bertso-eskola batek baino arrakastarako aukera handiagoa eman dezakeen eskaintza zehatzik, gaur egun. Ez da uste harro bat. Praktikak erakusten du.

5. ELKARRIZKETATUTAKO BERTSO-ESKOLAK: XEHETASUNAK

Bertso-eskola	Taldea	Herria	Saioak (2013-2014 ikasturtea)	Kide kopurua		Kideen adin- tartea
Gasteizko bertso-eskola	Amaia Zentroko taldea	Gasteiz	Astero, ordu eta erdiz	6		17-20
				Neskak	Mutilak	
				2	4	
Zalduondoko bertso-eskola	Gazteen taldea	Zalduondo	Astero, ordu eta erdiz	7		14-18
				Neskak	Mutilak	
				2	5	
Legutioko bertso-eskola	Heldu eta gazteen taldea	Legutio	Astero, ordu eta erdiz	7		17-20
				Neskak	Mutilak	
				3	4	

6. BIBLIOGRAFIA

AMURIZA, Xabier (1981). *Hiztegi errimatua – Hitzaren kirol nazionala (edizio berritua)*. Durango: Bizkaiko Bertsozale Elkartea.

SARASUA, Jon (2013). *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Iruñea: Pamiela.

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA (2013). *De repente... bertsoa! Jardunaldiak*. Andoain: Lanku bertso zerbitzuak.

GARZIA, Joxerra; EGAÑA, Andoni; SARASUA, Jon (2001). *Bat-bateko bertsolaritza: gakoak eta azterbideak*. Andoain: Bertsozale Elkartea – Bertsolari liburuak.

SANCHEZ, Ruben (2006). *Araba: bertso histori ezberdin bat*. Gasteiz: Arabera kultur elkartea.

ASKOREN ARTEAN (2008). *Bertsolaritzaren curriculum-a lehen hezkuntzan*. Oiartzun: Lanku ; Villabona : Euskal Herriko Bertsozale Elkartea.

IBARRA, Orreaga (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA-EUSKO JAURLARITZA (2013). *V. Inkesta soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2012). *ARRUE proiektua. Ebaluazio diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak*. www.soziolinguistika.org
(http://issuu.com/skluster/docs/ed2011_emaitza_nagusien_txostena)

AGIRRE, Lorea (2012). *Lau begiratu euskararen norabideari* (AED elkartearen hitzaldi zikloa). www.aedelkartea.com
(http://www.aedelkartea.com/index.php?view=article&catid=59%3Aartikuluak&id=429%3Alorea-agirre&option=com_content&Itemid=213)

